

IPARRALDEKO EKONOMIAREN KONTAKIZUN BAT



CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA

2024



RÉGION
Nouvelle-
Aquitaine

KONTAKIZUN HAU ZERTARAKO?

ZEIN NAHIKERIEKIN?

Iparaldeko ekonomiaren kontakizun hau, **lurraldeko gazteen orientazioaren in-guruko ibilBIDE esperimentazioaren kariatara idatzia** izan da. Garapen Kontseiluak eraman duen proiektua da, Akitania-Berria eskualdearen sustenguekin, 2021 eta 2024 artean.

Proiektua, **Ipar Euskal Herriko orientazioaren eragileek¹ osatu partaidetza lantalde batek** eramaiten du. Esperimentazioaren oinarritzko printzipioetako bat, **gazteak eta lurraldea, gogoeten erdigunean jartzea** izan da, orientazioari buruzko hausnarketak aitzinarazteko.

Esperimentazioa, **Iparraldeko profesional eta gazteek eginiko diagnostikoan** oinarritzen da (adin, perfil, jatorri, formakuntza guzietako 150 bat gazte galdezkatuak izan dira, beren behar eta esperantzei buruz).

Diagnostiko horrek baieztatzen du, gaur egun bizi profesionalean esperientziak biderkatu nahi dituzten gazteek, **beren lurraldea erakatsia izan diezaien** galdegiten dutela: lurraldeko kultura, ekonomia eta enpresak, historia, geografiaren ezagutza hobea nahiko lukete ukan. **Orientatzeko eta bere ibilbidearen eraikitze**ko jakintza baliagarriak dira.

> **AURKITU
KONTAKIZUN
HAU SAREAN**



¹Akitania Berria Eskualdea, Hezkuntza Nazionalaren Departamenduko Zerbitzuen Zuzendaritza, Baionako Informazio eta Orientazio Zentroa, Erakaskuntza Katolikoaren Elizbarrutiko Zuzendaritza (DDEC 64), SEASKA, Laborantza arloko erakaskuntza publikoa (Agrocampus 64), Laborantza arloko erakaskuntza pribatua (CNEAP), Paue eta Aturri Herrietako Unibertsitatea, Baionako IUT-a, Ipar Euskal Herriko Tokiko Misioa, Informazio eta Hurbileko Eskualdeko Espazioa, Baiona-Ipar Euskal Herriko Merkataritza eta Industria Ganbara, Pirinio Atlantikoetako Ofizio eta Ofizialeen Ganbara, France Travail, AZIA, Du Pays Basque aux grandes écoles elkarteak, Biga Bai, APEL, Baionako Cité Éducative, French Tech Pays Basque, Unis Cité, Launako, 64 Departamenduko Kontseilua, Euskal Hirigune Elkargoa...

BERE LURRALDEA HOBETO EZAGUTZEA:



lagungarria delako orientatzeko eta ibilbide baten defendatzeko.

Iparraldeko ekonomiaren kontakizun hau, gogoeta horien baita **ibilBIDE²** esperimentazioaren baitan eraman beste ekintzen ondorioz sortu da. **Orientazioaren eragileentzat** (bainan ere publiko zabalarentzat) **baliabide gisa errexki erabiltzeko** pentsatua da.

Lurraldeko ekonomiaren kontakizun bat da, manera sinplean (eta subjektiboan, edozein istorio kondatzen den bezala), zerk duen Iparraldeko berezitasuna egiten kondatzen duena, ikuspegi historikoa, geografikoa, kulturala... kondutan hartuz. **Tresna pedagogiko** honek lurraldeko aktibitate, lanbide eta errealitatean bere buruaren ikusteko laguntzen du.

Tresna hau, **animazio euskarri bat bezala pentsatua eta entseatua izan da jatorrian**, mapa baten aurkezpenarekin lotua (dokumentu honetan atxemaiten dena). Animazio hori segitu duten **publiko desberdinen ohar biziki baikorren** ondorioz, eskaera bat etorri da, batez ere orientazioaren profesionalenganik, **tresna honen argitaratzeko eta hedatzeko**, sarean bainan ere paperean...

Horra eskaera gauzatua.

²IbilBIDEk proposatzen zuen bigarren printzipioa zen, Iparraldeko ekosistema iraunkor baten estrukturaketa, esperimentaziotik haratago. Xehetasun gehiagorentzat, esperimentazioaren bilan orokorra 2025eko urte hasieran argitaratuko da.

Hala ere, nahiz eta Iparraldeko ekonomiaren kontakizun hau zuen esku artean edo begipean izan, **tresna honen inguruko gogoeta beti bidean** da. Lehen ale honek (2024) ez du zertan ale definitiboa izan beharrik.

Lehenik, aipatuak diren **informazioen eguneratzearen galdera** heldu delako naturalki (xifreak biziki fite deuseztatzen ahal dira, paisai ekonomikoa aldatzen ahal da, enpresa berriak agertzen ahal dira...).

Bestalde, kontakizun honi lotzen zaion lurraldea zabaldu beharko delako eta Hegoaldeko errealtate ekonomikoa kondutan hartu beharko delako, **hobeki ulertzeko Iparraldeko dinamika ekonomikoak eta bere harremanak auzo lurraldeekin**.

Manera berean, kontakizun hau frantsesez idatzia izan da lehenik eta ondotik itzulia euskarara. **Euskarazko ale baten idaztea posible liteke, ez litekena itzulpen bat, hau den bezala, bainan bai, kontakizun bat bere osotasunean**. Hala nola, Iparraldeko paisai ekonomikoaren kondatzeak euskaraz, beste lurraldearen ikuspegi bat ekartzen du nahi edo ez, batez ere Euskal Herri batean kokatuz Iparraldea, frantsesezko kontakizun batek naturalki frantses nazional mailako datuei erreferentzia eginen dielarik eta errexkiago Iparraldea, lurralde geografiko administratibo frantses batean kokatu.

Luzarora, kontakizun honen inguruko lanak, **lurraldearen ikuspegi desberdinen agertaraztea** ahalbidetuko du, Iparraldeko hizkuntza eta kultura desberdinen berezitasunen heineko.

Diagnostiko lan guziak bezala, kontakizun hau **erakunde eta datu base desberdinetan hartutako datuetan oinarritzen da**.

Baliabide horiek **azalduak dira eta irakurlearen eskura emanak**, orri bakoitzetako oharretan eta dokumentuaren bukaerako biblio-

grafian. Gaiaren argazki orokor bat emaiten badute, testuinguru batean kokatzekoak dira hala ere.

Datu horiek ekoizteko egin inkestak momentu desberdinetan eramanak izaiten ahal dira, eskala desberdinetan lan egiten duten erakunde edo kolektibitateenganik (mugaz-gaindikoa, herrien artekoa, Akitania-Berria eskualde mailakoa, Pirinio-Atlantikoetako departamendu mailakoa, edo frantses Estatuaren mailakoa), edo neurgailu desberdinak erabiliak izaiten ahal dira, konparaketa zaila bilakarazten dutenak.

Bere webgune eta sare sozialen bidez, Garapen Kontseiluak, kontakizun honen biharko aleak hedatuko ditu.

**Anartean,
lurraldearen
ezagutza on!**



AURREIRITZI ANITZ DIRA EKONOMIA ARLOAN



Jakina ote da Iparraldeko enpresen %96ak 10 soldatadun baino gutiago enplegatzen dituela?



Jakina ote da bi lanpostuetako bat hartua dela mota horretako enpresa ttipi batean?³



Jakina ote da industriaren sektoreak, turismoaren sektoreak baino pertsona gehiago enplegatzen duela?



Eta preseski, jakina ote da turismo sareko enpresak, Iparraldean, familiako enpresa ttipiak direla ororen gaineratik?



Jakina ote da Zuberoan, industriako lanpostu gehiago badela laborantzako lanpostuak baino?

Gure lurraldeak zinez ezagutzen ote ditugu?

Lurraldeko ekonomia gutti aipatua da formakuntza ibilbideetan. Estado edo mundu mailako diskurtso makro-ekonomikoak eramaiten duen irudian kokatua egoiten da ardura.

Norberaren mailan abstraktoak diruditen logiken, enpresa haundien edo kapital handien gaia baizik ez dela inpresio faltsua emaiten ahal du. Adibidez masa-turismoa, masa-industrializazioa aipatzen delarik.

Lurraldeko historia, geografia, eta kulturarekin lotura egiten duen kontakizunarekin, tokiko ekonomiaren

beste ikuspegi bat agertzea proposatzen du kontakizun honek. Garapen Kontseiluarentzat, ekonomia, nortasuna, transmisioa, elkar trukea, bizi moldea eta tokiko baliabideetan (lurra, mendia, itsasoa...) oinarritzeko gaitasunarekin moldatua da, bai eta Nafartar, Gipuzkoar zein Aturri iparraldeko auzoekin ditugun harremanekin. Ekonomia ez da bakarrik enpresei lotua, gure eguneroko errealitatea elikatzen du: gu guziak gara tokiko ekonomiaren parte, gure usaien, gure erosketen, gure kontsumoaren, gure kirol, kultura baita bizi sozialaren bidez.

³ BAIONAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBARA eta EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOEA. *Observatoire économique du Pays Basque*. 2019. <<https://www.techno-polepaysbasque.fr/fr/toutes-les-actualites/actualite/observatoire-economique-du-pays-basque-2019-est-publie.html>>

Kontakizun hau ez da neholaz ere osoa. Jakinmina piztea eta lurraldean proiektatzea laguntzea du helburu.

Lurraldean ikusten diren hamar langintza sektore berez (ik. 1. irudia) aitzinera ekartzea erabaki du Garapen Kontseiluak, kondutan hartuz bere historia, nortasuna, trebetasuna, ingurumen mailako hertsadurak etabar.

Tokiko ekonomiaren eragile garrantzitsuak dira sektore hauek. Eragina dute lurraldeko beste jardueretan (merkataritza, edozoin lurraldetan atzeman ditzakegun zerbitzuak...). Eragile dira ekartzen duten berrikuntzari esker, haiekin lotura hertsia duten beste sektore guztiak sostengatzen baitituzte (Frantziako laborantza ganbaren estimazioak diotenaz, laborantzako lanpostu batek, adibidez, zeharkako

bost lanpostu sorraraz ditzake⁴) eta lurraldearen erakargarritasuna garatzen dutelako.

Turismoa ez da sektore bezala tratatua kontakizun honetan, lurraldeko biztanleek ere mobilizatzen dituzten « ostalaritza eta sukaldaritza », « arte eta ekoizpen eskulangintza », « kultura, natura, kirol eta aisialdiak »... sektoreetan atzematen baitugu aldi berean. Hautu bat da.

LURRALDEARI LOTUAK DIREN 10 LANGINTZA SEKTOREAK



Laborantza eta hazkurri ekoizpena



Garraioa eta logistika



Kultura, natura, kirolak eta aisialdiak



Hegazkingintza, mekanika / metalgintza, materiala aintzindariak



Ostalaritza eta sukaldaritza



Arte eta ekoizpen eskulangintza



Numerikoa eta hedabideak



Eraikuntza



Itsasoa eta itsasbaterreko ekonomia



Osasuna eta ongizatea

⁴ FRANCE INFO. *Près de 15 % des emplois dépendent de l'agriculture en France ?* 2015eko otsailaren 19a. <https://www.francetvinfo.fr/replay-radio/le-vrai-du-faux/pres-de-15-des-emplois-dependent-de-l-agriculture-en-france_1772543.html>

LEHEN PARTEA




LURRALDEKO EKONOMIAREN AURKEZPENA

Ekonomia, lurraldeko geografia eta kulturari azkarki lotua zaio. Gure ekonomia sistema ulertzeko, lurraldea ezagutu behar da.

> DATU OROKORRAK

Euskal Herria, zazpi probintziaz osatua da. Horietariko hiru Iparraldean kokatuak dira (Lapurdi, Baxe-Nafarroa eta Xiberua), hots Frantziako Estatuaren administraziopean. Hegoaldean, lau probintzia dira: Nafarroa (hiriburua, Iruña), Gipuzkoa (hiriburua, Donostia), Bizkaia (hiriburua, Bilbo) eta Araba (hiriburua, Gasteiz). Azken hiru hauek

Euskal Erkidego Autonomia osatzen dute administratiboki, Nafarroako Foru Aldundia berriz beste lurralde administratibo bat delarik, biak ere Espainiar Estatuaren menpeko. Ipar Euskal Herrian 300.000 biztanle dira. Hegoalde osoan berriz, 2,8 milio dira.



2.995 km²-ko azalera du guzira:

- Miarrizetik, itsasbaterrean, Santa Grazira (ekialdeko herri urrunena), 100 km inguru dira.
- Urepeletik, hegoaldean urrunen kokatu herria, Aldude haranaren bihotzean, Bidaxunera, iparraldean, oro har 70 km;



- eta itsasbaterrean, Hendaia eta Bokale artean, oro har 40 km

320.000 biztanle⁵ inguru ditu, ezberdinki banatuak:

- eremu hiritarra itsasbaterrean (237.000 biztanle, hots hiru laurdenak bizi dira bertan, hauen artean 123.000 Miarrizte-Angelu-Baiona eremuan), Seignanx-eko (Landesetan) bizi eremuari lotua iparraldean, eta Irungoari hegoaldean;
- **barnekaldea**, 40.000 biztanle baino guttiagorekin, Nafarroa Beherea (Donibane Garazi, Donapaleu) eta Zuberoaren artean (Maule, Atharratze), herri batzu zentralitateak direlarik;



- **bitarteko lurraldea**, 45.000 biztanle baino gehiagorekin.⁶

- **Lurralde erakargarria da Iparralde: 3.000 eta 4.000 biztanle arteko hazkundea ezagutzen du urte guziaz.** Frantzia mailako turismo helmuga ospetsuenetakoa da ere, egunean 35.000 pertsona gehiago etorraziz urte osoko batz bestekoa egiten bada (turismo garaia apiriletik urria hedatzen delarik).

3 biztanleatarik **1** 60 urtez gorakoa da

Urtero

+

3.000 eta 4.000 biztanle artean

Europar lurralde guzietan gertatzen den bezala, **zahartzen den lurraldea** da ere Iparralde, baina beste lekuetan baino gehiago, erretretadun ugari erakartzen baititu: honela, **hiru**

biztanleetako bat, 60 urtez gorakoa da⁷. Erronka sozial garrantzitsua eragiten du horrek, bai eta datozen urteetan, lana iturri bat izaiten segitu beharko luke sektore horrek.

⁵ INSEE. *Comparateur de territoires*. 2020. [2024-ko otsailan begiratu]. <www.insee.fr/fr/statistiques/1405599?geo=EPCI-200067106>

⁶ Ikus Garapen kontseiluaren lanak lurralde antolaketari buruz: Lurralde Koherentzia Eskema eta elkargo azpiko Tokiko Hirigintza Planoak.

⁷ EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOEA. *Portrait social du territoire*. 2018ko uztaila. <https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/Etre_accompagne/Analyse_des_Besoins_Sociaux_Pays_Basque.pdf>

> GEOGRAFIA, KULTURA ETA EKONOMIA

Geografikoki 3 ezaugarri nagusi ditu Iparraldeak: Ozeano atlantikoa, Pirineo mendi katea, Espainiarekin duen nazioarteko muga.

OZEANO ATLANTIKOA

PIRINEO MENDI
KATEA

ESPAINIAREKIN DUEN
NAZIOARTEKO MUGA

Historikoki itsasoak eragin handia du tokiko jardueretan: Ziburuko arrantza eta lehen Ternuaraino joaten ziren baleontzien aktibitateak, gaur egun Baionako portutik abiatzen diren merkantzia ontzietara, surfa eta ur aisialdietatik iraganez. Ipar Euskal Herriko natura ondareak eta honen baliabideek tokiko ekonomia oso bat sortu dute.

Bide beretik Iparraldeko ezaugarri nagusietakoa dugu mendia moldatzen eta

biziarzten duten hazkuntza eta artzaingoa. Baina historikoki, industrialia zen ere mendi hau, meategiekin, harrobiekin, egurraren ustiaketaekin... Historia hau oraindik presente da tokiko irudimen kolektiboan eta enpresagintza kulturalan.



tokiko ekonomia



Bi Estatuen arteko mugaren presentziak, Iparraldea, **pasabide, migrazio eta trukaketa ekonomiko**en lekua bilakarazten du.

Baiona, Bilbotik (345.000 biztanle) hurbilago da Bordeletik (249.000 biztanle) baino.

Europar mailako iragaite ardatz nagusi batean kokatzen da Iparraldea Iberiar penintsula eta Europaren beste partearen artean.

4 ikasletatik 1^{ek}



murgiltze edo elebidun sisteman ikasten du

Iparaldeko biztanleriaren

%20a

euskalduna da

Alde batetik, lurraldea Frantziaren hego mendebalde muturrean kokatua da eta bestaldetik bizi den mugazgandiko lurralde baten erdian. Aipatzen ahal da **Txingudi eremua bere 100.000 biztanleekin**, Hendaia (Iparralde) eta Irun eta Hondarribi herriek (Hegoalde) osatzen dutena.⁸

Euskararen erabilerak baita kultura eta historia amankomunak, mugazgandiko harremanak azkartzen ditu.

Gaur egun, Iparraldeko biztanleriaren %20a

euskalduna da⁹ eta **kasik ikasleen laurdenak murgiltze edo elebidun sisteman ikasten du**¹⁰.

Erakargarritasun demografiko handia duen lurralde huntan, euskararen azkartzeko erronka handia da.

Denbora berean, euskaraz sortzen den dinamika kulturala, besten eta bizi sozialaren inguruan, aberatsa da, baita animazioak, ekitaldiak, tokiko ekoizpenen antolatze eta egiteko gaitasun handia bada euskalgintzatik.

Lurraldearekiko atxikimendua indar handia izan da ere ekoizpen langintza oso bat mantentzeko (laborantza, eskulangintza eta industria arlokoak). Errana dugu, Iparraldea erakargarria da eta zerbitzu, merkataritza, eraikuntza, etxegintza... ekonomia bat ekartzen du erakargarritasun honek. Horrela, emazte eta gizon ugari borrokatu dira haien etxaldea zaintzeko, inbertitzeko eta enpresak sortzeko. Enpresagintza kultura

azkarra da Ipar Euskal Herrian, enpresa ttipiekin usu familiakoak, eta hau, sektore guzietan.

Iparraldeko ekonomia bi erronka nagusien arteko tentsioan garatzen da: **zerbitzu lurraldea bilakatzeko joera** alde batetik eta bestetik, **lanbide eta trebetasun** desberdinen aldeko ekoizpen, fabrikazio **lurralde bat izaten segitzeko erresistentziaren** artean.

EKOIZPEN LANGINTZAK



laborantza



eskulangintza



industria

⁸ Bidasoa-Txingudi partzuergoa sortu dute: Hendaia, Hondarribia eta Irun elkartzten dituen erakundea da. Gaitasunak dituzte turismoa, ekonomia, soziala, kultura arloetan eta mugazgandiko proiektuak eramaiten dituzte.

⁹ 16 urtez gorako pertsonak. EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA (EEP) eta AU-DAP. *Perspektiba soziolinguistikoak: Euskara 2050eko epemugan. Ipar Euskal Herriko euskaldunen estimazioa eta 2050eko epemugaren perspektiban*

jartzea. 2024ko ekaina. <https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/20240610_EEP_EUS.pdf>

¹⁰ EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA (EEP). Euskararen Adierazle Sistema. [2024ko urtarrilean begiratu]. <<https://www.mintzaira.fr/eu/baliabideak/euskararen-adierazle-sistema.html>>

> TOKIKO EKONOMIAREN ZENBAKI NAGUSIAK

Akitania Berriko bigarren polo ekonomikoa da Iparraldea, Bordeleko metropoliaren ondotik (biztanleria, lanpostuak, enpresak).

320.000 biztanleetatik, 150.000 inguru dira pertsona aktiboak, hauen artean:


- 110.000 soldatadun;
- 30.000 « enpresaburu »¹¹;
- 10.000 lanpostu bilaketan¹².

Honela banatzen dira 140.000 lanpostuak:


- % 70a pribatuan (% 45a merkataritza-zerbitzuetan, % 25a industrian, eraikuntzan, laborantzian);
- % 30a publikoan (kolektibitateak, osasun saila, hezkuntza).

Sektore pribatuan, enpresen gehiengoa enpresa biziki ttipiek¹³ edo enpresa ttipi eta ertainek¹⁴ osatzen dute, baita 10 bat maila ertaineko enpresek¹⁵.

Irudia: enpleguen banaketa lan arloka. Baionako Merkataritza eta Industria Ganbara, *Observatoire économique du Pays Basque*, 2021.



Langile gehiena dituzten eragileak sektore publikokoak dira:





¹¹ Enpresaburuak, auto-enpresariak, etxalde buruak, lanbide liberalak, haien konduko ari diren beste lanbideak...

¹² %6ko tasa, Akitania-Berria eskualdea eta Frantzia Estatu mailako balioak baino apalagoa, historikoki apata eta lanpostu osotik hurbil | BAIONAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBARA. *Baromètre ECO - L'enquête de conjoncture de la CCI Bayonne Pays Basque*. 2023ko iraila. <https://www.bayonne.cci.fr/sites/g/files/mwbcuj1516/files/2023-09/CCIBPB-BarometreEco_S1_sept_2023.pdf?tstmp=1693906099>

¹³ 0 eta 19 langile artean.

¹⁴ 20 eta 249 langile artean.

¹⁵ 250 eta 4.999 langile artean.




500-999
langile
artean

DASSAULT AVIATION
ANGELU – Aeronotika
eta espaziala eraikuntza

EPTA FRANCE SAS
HENDAIA – Industria tresna
hozgailuen ekoizpena

QUIKSILVER
DONIBANE LOHITZUNE –
Beztigintza komertzioa



250-499
langile
artean

TECHNOFLEX
BIDARTE – Plastikoz eginiko
babesen ekoizpena

LAUAK FRANCE
AIHERRA – Metalezko
estruktura eta estruktura
parteen ekoizpena

SANTE SERVICE
BAIONA – Hospitaleko
aktibitateak

B BRAUN MEDICAL
DONIBANE LOHITZUNE –
Kirurgia eta hortzetako
materialaren ekoizpena

ONET-SERVICES
BAIONA – Garbiketa
aktibitateak

DJO FRANCE
MUGERRE – Farmazeutika
arलोko produktuen komertzioa

CARREFOUR
ANGELU – Supermerkatuak

BELHARRA KLINIKA
Baiona – Hospitaleko
aktibitateak



200-249
langile
artean

AGUILERA KLINIKA
MIARRITZE – Hospitaleko
aktibitateak

LECLERC ANGELU BAB
ANGELU – Supermerkatuak

LECLERC URRUÑA
URRUÑA – Supermerkatuak

**POLYCLINIQUE CÔTE
BASQUE SUD**
DONIBANE LOHITZUNE –
Hospitaleetako aktibitateak

RENAUDIN LABORATEGIA
ITSASU – Farmazeutika
prestaketen ekoizpena

SUEZ EAU FRANCE
MIARRITZE – Uraren kaptazio,
tratamendu eta banaketa

DÉCATHLON
HENDAIA – Kirol jantziak

LABEYRIE
CAME – Haragi komertzioa

BMS CIRCUITS
MUGERRE – Karta elektronikoko
ekoizpena

Oharra: Langile kopuruak
enpresaren eraikinari lotuak dira
eta ez enpresari edo enpresa
taldeari.

Iturria: INSEE, SIRENE 2020 /
AUDAP 2020

Irudia: "Ipar Euskal Herriko lehen 20 enplegatzaile pribatuak". BAIONAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBARA, EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOIA (EHE) eta AUDAP, *Observatoire économique du Pays Basque*, 2021.

> IPARRALDEKO EKONOMIAREN EZAUGARRI BATZU

Aktibitate aniztasuna

Enpresa biziki ttipi anitz

Ekonomia dinamikoa

Historikoki, Iparraldearen berezitasuna izan da **aktibitate, gaitasun eta lan-postu aniztasuna**. Lurraldeak ez du ondorioz berezitasunik ekoizpenetan: sektore guztiak errepresentatuak dira, arlo nagusien pizua berdintsua delarik, erresilientzia ezaugarri bat dena sektore baten krisia izan behar balitz.

Aktibitateen aniztasuna eta familia mailako enpresen kulturak eragiten du enpresa biziki ttipiek osatzen dutela ehun ekonomikoaren gehien-goia: **Iparraldeko %96ak 10 langile baino gutiago ditu! Lurraldeko enpleguen erdia errepresentatzen dute.**¹⁶

Lurraldeak, eskualde mailako edo Frantzia mailako batz bestekoak baino lan-postu sortze¹⁷ gehiago baditu. Lan-gabezia¹⁸ gutiago badu ere. **Lurraldeko biztanleriari itzulia den ekonomiaren nagusitasuna** ez da Iparraldearen berezitasuna: frantses ekonomiaren tendentzia orokorra da, 1970 eta 2000 urteen artean, desindustrializazio handia ezaguturik. Honek, lurraldearen erakargarritasunari loturik, ondorio latzak izan ditzazke: lan-postu xumeak, aktibitate ekonomiko batzuen urruntzea, etxebizitzaren ukaiteko zailtasuna, jende batzuen baztertzea, etabar.

Iparraldeko enpresen

%96ak

10 langile baino gutiago ditu

Edozein gisaz, zerbitzuetan, berezi behar dira:

- biztanleen kontsumoari zuzenki lotuak direnak;
 - enpresen beharrei lotuak direnak (informatika, bi-tarteko lana);
 - lehen enpresen baitan sartuak zirenak eta azpikontratatuak izan diren zerbitzuak (kudeaketa, logistika, mantentzea, konpontzea, mantenua...).
- Zerbitzu hauetako anitz fabrikatze langintzarako garatuak dira: **zerbitzu ekonomiaren zati handi bat, ekonomia produktiboaren araberakoa da.**

¹⁶ BAIONAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBARA eta EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOEA (EHE). *Observatoire économique du Pays Basque*. 2019. <<https://www.technopolepaysbasque.fr/fr/toutes-les-actualites/actualite/observatoire-economique-du-pays-basque-2019-est-publie.html>>

¹⁷ Enpresen sortze tasa, %13,2koa da Iparraldean, Akitania Berrian %12,2-koa delarik | BAIONAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBARA. *Les chiffres clés de la création et reprise d'entreprise au Pays Basque*. 2023ko iraila. <<https://www.bayonne.cci.fr/actualite/les-chiffres-cles-de-la-creation-et-reprise-dentreprise-au-pays-basque>>

¹⁸ Iparraldeko langabezia tasa %5,8koa da, Frantzia mailan %6,9koa delarik 2023 lehen hiruhilabetekoan | BAIONAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBARA. *Baromètre ECO - L'enquête de conjoncture de la CCI Bayonne Pays Basque*. 2023ko iraila. <https://www.bayonne.cci.fr/sites/g/files/mwbcuj1516/files/2023-09/CCI-BPB-BarometreEco_S1_sept_2023.pdf?tst-mp=1693906099>

Pisu inportantea atxikitzen du ekonomia produktiboak Ipar Euskal Herrian, hau, ekoizpen enpresa ttipi eta ertain ehun historikoaren dinamikari esker. Besteak beste hegazkingintza eta hazkurri sektoreetan behatu hazkundera dugu bizkortasunaren adibide esanguratsua.¹⁹

Molde berdinean, laborantza arloko lanpostuen apaltzea Frantziako batez bestekoa baino apalagoa izan da; Iparraldeko lanpostuen %5ekoa delarik gaur egun²⁰, erran nahi baita metropoliako bana bestekoa baino bi aldiz gehiago.²¹ **Kalitatezko laborantza eta tokiko ekoizpenari konektatutako hazkurri industriak mantenduz, ekoizpengintzaren erresistentzia bermatu dute.**

GALDETEGIA: TURISMOA EDO INDUSTRIA

Zuen ustez, Iparraldean, zein sektorek du enplegu zuzen gehien turismoa eta industriaren artean?



Industria da, lanpostuen %10arekin, %7koa delarik turismoan. Azpimarratzekoa da Ipar Euskal Herriko batz besteko soldata gorenak industrian aurkitzen ditugula: 2.603€ gordineko lan-saria (lurraldeko batz bestekoa 2.164€-koa delarik)²².

Zuen ustez, zein da Zuberoko lehen langintza sektorea lanpostu zuzenen mailan?

Industria da lanpostuen %24arekin, laborantza baino handiagoa (%15a)²³

¹⁹ EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOA. *Schéma de Développement Économique*. 2019. <https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/kiosque/SDE-2019-EXE-4.pdf>

²⁰ EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOA (EHE), BAIONAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBARA eta AUDAP. *Observatoire économique du Pays Basque*. 2021. <<https://www.bayonne.cci.fr/sites/g/files/mwbucuj1516/files/2022-05/observatoire-economique-2021.pdf>>

²¹ Lanpostuen % 2,5a hartzen ditu laborantzak Frantzian | INSEE, *Tableaux de l'économie française*. 2020. <<https://www.insee.fr/fr/statistiques/4277675-sommaire=4318291>>

²² EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOA (EHE), BAIONAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBARA eta AUDAP. *Observatoire économique du Pays Basque*. 2021. <<https://www.bayonne.cci.fr/sites/g/files/mwbucuj1516/files/2022-05/observatoire-economique-2021.pdf>>

²³ AZIA. *Le Guide de l'Emploi*. 2018. <<https://azia.xyz/wp-content/uploads/2018/04/azia-guide-mars-2018-internet.pdf>>

> NOLA IBILTZEN DA EKONOMIA?

Enpresen bizia ez da zinezko bizitik deskonektatua: ekonomiaren zati handia (gehien bat tokiko mailan) ekonomia « konkretu » bat da.

Haien kontsumo, erosketak ohiduren bidez, eragile ekonomikoak dira:

- gu, herritarrak, eta errezebitzen ditugun turistak;
- haien erosketak behar propioak (materiala, baliabideak, zerbitzuak...) dituzten enpresak;
- gure elkarrekin eta gure tokiko kolektibitateak.

Gure kontsumoak, tokiko ekonomia, guti edo aski lagun dezake, lekuko eskaintza eta eskaeraren artean jokatzen delako.

IPARRALDEKO EKONOMIAREN MUGIMENDUAK



ESKAITZA

Lekuko ekoizpena
14,26 miliar euro



Lekuko ekoizpenaren %52a exportatua da -
7,48 miliar euro
Frantzia + mundua

Ipar Euskal Herria

Lekuko trukaketak
6,78 miliar euro



« 0,27 miliar €

0,43 miliar € »



Lekuko galdearen %56a inportatua da
7,72 miliar euro
Kanpoko ekoizpena

Euskadi

Nafarroa



GALDEA

Lekuko beharrak -
13,73 miliar euro

Eskema honetan, tokian berean ekoizten dugunari dagokio eskaintza, izan ondasun materialak (laborantza, industria, eskulangintzako mozkinak) edo ondasun ez-materialak (zerbitzuak). Eskaintza hau, ekoizteko ahalmen hau, besteak beste tokiko baliabideei esker egingarria da²⁴, giza baliabideei (lurreko emazte eta gizonen trebetasun eta gaitasunak, hortik haien formatzeko garrantzia), natura baliabideei (lehengaiak, energia, ura...); eta aktibitate ekonomikoa sostengatzeko (kolektibitate publikoen zeregina) lurraldeak sortu erakunde guzietan.

Ekoizpenaren gehiengoa lurraldetik kanpora « saldua » da (esportazioak), izan hazkurri arloan (gasnak...), hegazkingintzan (hegazkin hegala...), edo aholkularitza lanetan, adibidez. **Gure « trebetasuna » esportatzen dugu.** Kolektibitate publikoak eta elkarteak beste enpresa motakotzat hartu behar dira, ekoizten dutena esportatzeko edo lurralde kanpotik etorri eskaera baterako baliatuak izan daitezkeelako.

Lurrean eskura daitezkeen mozkinetaz gain (ondasunak edo zerbitzuak), « eragile ekonomiko » guzietan beharrezkoak

zaizkien **lurreko kanpotik erakarri** ekoizpenez osatua da ere **tokiko eskaera** (tokian berean kontsumitzen ditugun ondasun eta zerbitzuen %56a kanpotik ekarritzen dugu): enpresak, elkarteak mundua, kolektibitateak... gu guzietan, biztanleak, hiritarak, kontsumitzaileak. Iparralde bezalako lurralde dinamikoan, urtero errezebitzen dituen biztanle berriekin eta duen arrakasta turistikoarekin, lekuko eskaera hori bultzatua da.

GURE « TREBETASUNA » ESPORTATZEN DUGU.

Ekoizten dugunaren gehiengoa esportatzen dugu beraz, kontsumitzen dugunaren gehiengoa inportatzen dugularik. Mendebaldeko lurralde guzietan berdina gertatzen dela ohartzen gara, eta horrek eramanen gaitu gogoetatzen birkonpainaren erronkari, besteak beste desafioko klimatiko eta energetikoari aurre egiteko.

Gure ekoizpen eta kontsumo moduen egokitzea erabakigarria izanen da trantsizio ekologikoa egiteko helburu diren urteetan. Inportazioak apalduz, enpresen, kolektibitate eta elkarteak kontsumoa (energetikoa, materiala...) apalduz, tokian berean eta energia gutiago erabiliz ekoiztuz, gauzak berriz erabiliz eta birziklatuz, tokiko sareak sortuz (eragile ekonomikoaren artean adibidez), hauek ditugu lurraldeko eragile ekonomikoak eta kontsumitzaileak eraman beharko dituzten desafiokoak.

²⁴Tokiko ekoizpenari beharrezkoak zaion baliabideen parte bat inportatua delarik.

BIGARREN PARTEA

IPARRALDEKO EKONOMIA 10 SEKTORE NAGUSIEN BITARTEZ

> HAUTU BAT: GURE EKONOMIA GURE TREBETASUNEN BIDEZ KONTATU

Sarreran zehaztua den bezala, lurraldeari berezitasun bat ekartzen dieten langintza sektoreen begirada ekarriz Iparraldeko ekonomia aurkeztea hautatu dugu:

HAREN HISTORIATIK

adb. termalismoa
Pirinioetan

EZAUGARRI NATURALETATIK

itsasoko arrantza, laborantza
eta artzaingoa mendian

KULTURATIK

hizkuntza, ohidurak, artea, besta
giroa, kirolak...

MOZKINAK ESPORTATZEKO GAITASUNETIK

hazkurri industria, hegazkingintza

DEMOGRAFIA BIZKORTASUNETIK

ostalaritza-sukaldaritza, eraikuntza,
etxebizitza... gisako sektoreak bultzatzen
dituen demografia bizkortasunetik

Lurraldeko ekonomia guzira eragina duten langintza arloak dira hamar sektore handi horiek.

Honela, turismo langintza ez da arlo gisa tratatua, ondotik aipatu sektore gehienetan atzematen dugun zeharkako ekonomia bat delako.

Hala ere, turismoa, Iparraldeko arlo bizkorra eta aski egituratua da (ikus laukia).

TURISMOAREN ARLOA

10.000 lan-postu inguru dira turismoaren arloan. Langintza sektore hori egituratua da:

- **Profesionalen mailan, UMIH Pays Basque** (Union des Métiers et des Industries Hôtelières) eta GOazen cluster-arekin batez ere;
- **Informazio eta promozio erakunde publikoen mailan**, Iparraldeko Turismo bulegoekin, herrietako bulegoekin (Baionan, Miarritzen, Angelun, Hendaian, Kanbon), erakargarritasun eta turismoaren departamenduko agentziarekin;
- **Formakuntza mailan**, Miarritzeko hostalaritza eta Donibane Garaziko Navarre lizeoekin, formakuntzak proposatzen dituztenak ostalaritza-rekin lotura duten lanbideentzat, CAP mailatik baxoa+2 mailara.

> LANGINTZA SEKTOREEN HISTORIA



Ba ote dakizue, 1980 hamarkada arte, Pirinioetako mendate guzia lurralde industrialala zela lehenik?

Hareharri edo harri xuri harrobiak, burdin edo kobre meategiak, egurra...: industria gehiago bazen orduan Ortaize eta Banka (Nafarroa Beherea) artean Baionan baino!

Gaur egun espartingintzak lanpostu gutiago eskaintzen ditu Zuberoan baina, beste lekuetan bezala, oroimena gelditzen da (zapatagintza industria XX. mendean biziki garatua zen Hazparnen bezala). **Industria kulturak irauten du gaur beraz, eta beste arlo batzuetan garatu da: hegazkingintza, hazkurri industria, ekoizpen eskulangintza...**

Beste arlo batean, jakin behar da arta eta termalismoaren industria nagusiki Kanboren inguruan eta itsasbazterrean garatua dela Eugenia Enperadosaren eraginari esker. Itsasoan bainatzea gustukoa zuen honek, hauen jendarteratzea azkarki lagunduko du XIX. mendean eta ur hirien garapena Pirinio mendate osoan bultzatuko du. **Tradizio termal historikoa** eraginen du **gure lurraldean**.

Sektore hau ondotik medikuntza eta ongizatera hedatu zen, bertan edo hortik hurbil zeuden kimika / farmazia sektoreekin loturan.

Beste faktore anitzi lotua zaio tokiko ekonomiaren bilakaera: **politikoak eta estrategikoak** (hegazkingintza zibil eta militarra garatzen duen Frantzia), **tokikoak eta jendartearenak** (militantismo ekonomikoa), **lurraldearen erakargarritasuna** (surfeko izen handiak hemen plantatzera bultzatzen dituen).

Zentzu berezia du **militantismo ekonomikoak** Ipar Euskal Herrian. 1960 eta 1970 hamarkadetan, hizkuntza eta kultura ez ezik, ekoizpen langintzak zaintzea xede duen kultura mugimendu bat sortzen da: enpresa

berriz hartze eta sortzea, lanpostu sortzea, tokiko ekoizpenen kalitatearen hobetzea²⁵. « Herrian bizi eta Herrian lan » lelotzat zeukan mugimendu honek hainbat tresna ekonomiko sortzea ahalbidetu du²⁶.

Aipatzen ahal dira:

- Laborantza munduan eraman urrats kolektibo eta baserri guneko garapen ekonomikoan, **HERRIKOA** (tokiko enpresetan inbestitzen duena), CLEJ (gazteentzako tokiko aurrezpen batzordeak), CLEF (emazteentzat)... bezalako tokiko ekonomiaren aldeko sostengu tresnak sortuz;
 - **Baionako Merkataritza eta Industria Ganbararen**²⁷ bulkada historikoa **Izarbel-en** (Bidarte) **ESTIA** bezalako formakuntza eta berrikuntza tresna bat eskaintzeko lurralde mailan (ik. 2.arloa);
 - EPFL eta AUDAP bezalako lurraldeko ingeniari-tresnak, lurraldeko eragileek bultzaturik (hala nola, Garapen kontseilua, Hautetsien kontseilua...²⁸);
 - Azken hamabost urte hauetan, trantsizio ekologiko eta energetikoa eta ekonomiaren birkokapen erronkei egokiak zaizkien proiektuen jalgitzea: **Euskoren** sortzea (tokiko moneta, gaur egun Europako garrantzitsuena), tokiko energia ekoizle batena (**I-ENER**)...
 - Beste lekuetan baino kooperatiba sorkuntza gehiago eta elkarre mundu bizkorragoa (ik. ESE laukia, ondoko orrian). Horiek, lekuko ekoizpen tresnak dira bainan, hizkuntza, kultura eta jendarte problematika guztiak (etxebizitza, prekaritatea, migranteak...) sostengatzen dituzte ere;
- Parametro askoren emaitza da beraz lurraldeko ekonomia. Anitz zor die lurraldeari eta zenbait langintza istorioen artean lotu diren harremani.**

²⁵ ITÇAINA. « Les mobilisations discrètes » : Affirmation identitaire et choix économique en Pays Basque français. *Sociologia : problemas e prácticas*. 2006. < <https://shs.hal.science/halshs-02176611> >

²⁶ Ikus HEMEN-en (HEMEN. *Présentation*. 2017. < <https://hemen-herrikoa.org/hemen/> >) eta HERRIKOAREN historia (HERRIKOA. *25 ans d'histoire*. 2006. < <https://www.herrikoa.com/images/livre-25-ans.pdf> >)

²⁷ Merkataritza eta Industria Ganbara bat sortua izan den 1948an garapen ekonomikoa sustatzeko.

²⁸ EPFL (Établissement Public Foncier Local) ; AUDAP (Agence d'Urbanisme Atlantique et Pyrénées). Ikus « L'histoire de la démarche territoriale menée en Pays Basque depuis 1992 » : IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA. *La voix de la société civile*. SOAK, 2016ko azaroa.

> EKONOMIA SOZIALA ETA ERALDATZAILEA (ESE)

Bere ekonomia, laborantza, hizkuntza, kultura sostengatzeko eta behar sozialei erantzuteko... tokiko nahikeria **elkarte mundu azkar baten bidez adierazten da Iparraldean**.
Elkarte gehienak nahianta batzuek kudeatzen badituzte ere, elkarte mundu horrek eragin azkarra du tokiko ekonomian.



Elkarte mundu azkar bat dago Iparraldean

Medikuntza-sozial arloan bereziki, interes orokorreko izaera duten hainbat aktibitatearen euskarria da ere 1901 legepeko elkarteak: haur edo nerabeentzako harrera egiturak, zahar etxeak, ahalmen urriko egoeran dauden pertsonentzako bizi-guneak, prekaritatean dauden pertsonen

sostengu elkarteak... elkarte hauek (eta molde zabalagoan ESE sailak, ik. beheago) instituzioen lekukoa hartzen dute lurraldea mailakatzeko eta zerbitzuak herritarren hurbilenera ekartzeko (besteak beste baserri-guneko lurraldeetan).

Pirinio Atlantikoetan



10 lanpostuetatik **1** elkarteetan aurkitzen da!²⁹

ESE-ren parte dira elkarteak, kooperatiba, mutualitate edo fundazio moldean antolatutako diren aktibitateak eramanez, barne ibilmoldea eta aktibitateak, elkartasun eta onura sozial printzipioan oinarriturik. Kudeaketa molde demokratiko eta partehartzaileak dituzte enpresa hauek, (kide bakoitzak, nolana izan bere diru mailako ekarpena, bozkatzeko eskubide berdina du) eta biziki zorrozki zaintzen dituzte egiten dituzten etekinen erabiltzeko moldeak.

Kooperatiba izaera duten enpresa ugari aurkitzen dira Iparraldean, ekoizpen kooperatiba sozietateekin (SCOP). Hauen artean aipatuko ditugu: **COPELECTRONIC** (mozkin elektriko eta elektronikoak), **LOREKI** (biomasari balioa eman), **ALKI** (altzariak), **ZURLAN** (maiasturuntza, zurgintza), **HEMENGO ERLEA** (garraioa), **BIOLUZ LABORATEGIA** (farmazia),...

Elkarteak eta enpresa logika beharrezkoak dituzten interes orokorreko langintzei biziki egokia den SCOP-aren arteko erdibideko SCIC kooperatiba ereduak sortu du legeak berriki. Adibide azkarrak badira Ipar Euskal Herrian: **OTSOKOP** kooperatiba supermerkatua, **LEGUMES PRO** profesionalen zuzendu barazki salguena, **ALDUDARRAK BIDEO** telebista partehartzailea, **ENARGIA** tokiko energia hornitzailea...



*Ekonomia
Soziala eta
Eraldatzailea*




*Sozietate
Kooperatibo eta
Parte-hartzailea*



*Sozietate
Kooperatibo eta
Kolektiboa*

²⁹ EKONOMIA SOZIALA ETA ERALDATZAILEA ETA ELKARTE BIZIAZ ARDURATZEN DEN ESTATUKO IDAZKARITZA. *L'Essentiel de la vie associative* 64, 2022ko abendua. < https://www.associations.gouv.fr/IMG/pdf/essentiel_64.pdf >

1. ARLOA



Hegazkingintza, mekanika / metalgintza, materiala aintzindariak

> HEGAZKINGINTZA INDUSTRIA

Mekanika eta metalgintzarekin, hegazkingintza industria historikoki dinamikoa den sarea da, 3.000 lanpostu eskaintzen baititu hemen. Hauei gehitu behar zaizkie ingeniari lotu 1.500 lanpostu inguru (ikerketa bulegoak eta beste zerbitzuak). Garatzen ari den eta beti berritzen den sare hau, berrikuntza, teknologia berri eta, konposatua eta mekatronikoa, materiala aintzindari hauen ekoizpen prozesu berrien bila dabil etengabe.

Landesetako hegoaldetik Biarnora doan eremu ekonomikoan sartzen da gure bizi eremua, **SAFRAN HELICOPTER ENGINES** (Tarnos) edo **DASSAULT AVIATION** (Angelu) bezalako mundu mailako enpresekin. Enpresa hauekin bainan ere Toulouse-eko eskualdean kokatuak diren hegazkingintzako eta aeroespazialgintzako enpresa handiekin lanean ari diren azpitratatzaileen sare handi bat bada gure eremuan.

3.000
lanpostu

eskaintzen
ditu

+

1.500
lanpostu

ingeniaritzari loturik

Iparaldean, ETE eta EBT azpitratatzaileak lurralde osoan barreiatuak dira, kostaldean bezainbat, Hazparne inguruan eta Zuberoan ere. Haien trebetasunari esker, hegazkingintzatik kanpoko beste industria sare batzuekin (eraikuntza, hazkurri industria, garraioa, etabar..) lan egiten ahal dute.

Hegazkingintzako enpresak:

DASSAULT AVIATION

enpresa, Ipar Euskal Herriko enplegataile pribatu handiena da 900 soldatadunekin. Falcon jet eta Rafale hegazkinetarako piezak ekoizten ditu besteak beste;

OPTIMA AERO

ekonomia zirkularrean sartua eta helikopteroetarako hegazkingintza piezen berrerabiltzean berezitua den enpresa, haren europar adarra berrikitan Angelun plantatu du;

LAUAK

Aiherra eta Hazparnen 430 soldatadun enplegatzan dituen enpresa historikoa da. Hegazkingintza industriarako lehen piezak gauzatzeko azpitratatzaile nagusienetakoa da;

ARTZAINAK

Maule

taldeak 10 azpiegitura eta 250 langile ditu. Aeronotika, eraikuntza eta ur-kirolen arlorako, produktu mekaniko eta plastikoak pentsatzen, ekoizten eta komertzializatzen ditu;

ELKAR

Maulen kokatua den enpresak, Baiona eta Ordizian ideki ditu lokalak. Aeronotika, espaziala arloa, treinbide eta hazkurri industriarentzat, tresneria, robotika eta ekoizpen maxinak pentsatzen eta ekoizten ditu;

LOPITZ

Jatsu

taldea, bere 210 enplegatuarekin, metalgintzan, soldatzean eta makinaz landu metal eta konposatuak berezitua da: haren trebetasunari esker, bezeroak hornitzen ditu hegazkingintzan bezainbat hazkurri industrian, etxegintzan ere;

AERO MECANIC'S

Miarritze

6 soldatadunekin, hegazkin ttipien zaharberitzean lehena da Europan (motorretik tindura, hegal egiteko homologazioa arte);

SOMOCAP

Jatsu

ETE bat da (48 soldatadun) pieza tekniko konposatu, termoplastiko eta elastometroak asmakuntzan eta sorkuntzan berezitua.

> PLASTURGIA ETA KONPOSATUEN INDUSTRIA

Hegazkingintza, autogintza eta ur kirola arloetan garatu dira ekai konpositoak, berrikuntza eta bilakaera teknologikoa ekarriz, baliabide desberdinak mobilizatuz (zeramikazkoak, organikoak, metalezkoak...).

Plasturgia eta konposito enpresa batzuk:

LYNXTER

Baiona

Technocité-n (ik. ondoko orria) kokatu eta silikona 3D inprimagailu munduan, liderra bilakatu den enpresa gaztea da;

PIKA COMPOSITES


Baiona

enpresaren langintza muina, industria, hegazkingintza edo ur kirolarako emaitza handiko konposatuen eta pieza erdi bukatu edo bukatuen ikerketa eta fabrikatzean datza. **DUQUEINE** frantses taldean sartua da orain;

AKIRA TECHNOLOGIES

Baiona

enpresak hegazkingintza, autogintza baina baita defentsako industriarako lan egiten du. 2018an, bere gaitasuna osatzeko, hegazkingintza motorizazioan berezitua den **PRICE INDUCTION** (Angelu) sozietatea berriz hartu du. **TURBOLAB** proiektua abiatu du ere (ESTIArekin partaidetzan): « Hegazkingintza Berritzaile Propulsiolari » eskaini industria / ikerketa / irakaskuntza entsegu plataforma partekatua.



> FORMAKUNTZA, BERRIKUNTZA ETA IKERKETA & GARAPENAREN EKOSISTEMA

Ipar Euskal Herriak jakin izan du, sektore horretako enpresek eta haien soldatadunek, gaitasunak hobetzeko tresnak sortzen.

TECHNOCITE, hegazkingintza, ur kirol, aeroespazial eta materiala aitzindarien arloetan ikerketa eta berrikuntza tresnak ekartzen dituen gunea da **COMPOSITADOUR ETA ADDIMADOUR** berrikuntza plataformarekin ekai konpositoetarako eta 3D-ko fabrikatze gehigarriarako.

ESTIA (Bidarten) teknologia aitzinatuetan berezitua den ingeniarietza eskola da. Ingeniariak mekatronikan, robotizatzean edo gero-rako prozesuetan, egitasmoen ingeniariak... formatzen ditu.



ESTIA

Goi mailako formakuntza ikastetxeak baino lehenago, beste formakuntza tresnak dauzka lurraldeak:

- **PAUEKO ETA ATURRI HERRIALDEKO UNIBERTSITATEAK** BAXOA+3 industria eta mantentze ingeniarietza BUT bat proposatzen du Angelun;

- **SAINT-JOSEPH LIZEOAK** (Hazparnen) industrian, elektronikan berezitu baxo profesionalak eta hegazkingintzaren iniziazio brebeta (BIA, 2.-etik aitzina irekia) proposatzen ditu;



- Iparraldetik hurbil, **JEAN TARIS LIZEOAK** (Peyrehoraden) hegazkingintzarekin lotu hiru baxo profesionala proposatzen ditu.

Beste trebetasun eta jakintza industrialak metalgintzan, kimikan...

EPTA, hozte prozesu profesionalen aterabideetan berezitua den enpresa da, ekoizpen gune bat Hendaian duela. 600 lan-postu baino gehiagorekin, Iparraldeko enplegatzaile handienetakoa da; **CELSA** (Bokale) burdinaren berziklatzean Europa maila-


ko buru bat da eta gure bizi eremuan 280 langile enplegatzen ditu;

MATERIEL FERROVIAIRE D'ARBERATS (Arberatze-Zilhekoa) trenbideen gurutzatzeko tresneriaren ekoizpenean berezitua den burdinola da eta 130 langile ditu;

EMAC (Bildoze-Onizepea) kautxuzko babesteko ekipamendua ekoizten du eta 25 langile ditu.

ETCHE SÉCURITÉ (Bildoze-Onizepea) enpresak kautxuzko babesak ekoizten ditu eta 25 langile ditu.

2. ARLOA



Laborantza eta hazkurri ekoizpena

3.770 etxalde kontatzen ditugu Iparraldean, 5.000 lanposturekin. Zenbaki hauei, ehun bat enpresaz (3.000 lanpostu inguru) osatua den hazkurri industria gehitzen bazaie, ohartzen gara **sektore honetan Iparraldeko hamar enpresetako bat aurkitzen dela!**

Iparraldeak tokikoa ekoizten eta transformatzen du baina ekoizpen honen %80a esportatzen du.

10 enpresetarik 1

hazkurri industrian aurkitzen da

ekoizpenaren

%80a

esportatzen du

Iparraldeko etxaldeak³⁰...



- **ttipiak dira:** 31,7 hektarea bataz beste (Frantziako etxaldean bataz-bestekoa baino bi aldiz gutiago);
- **anitz dira:** 24 etxalderekin udalerrri bakoitz, bataz beste, Frantziako beste lekuetan baino bi aldiz gehiago;
- **nagusiki hazkuntzan berezituak dira** (%84a), ardien gehiengo batekin esnea ekoizteko.



³⁰ EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOEA (EHE). [Open Data ZABAL]. Recensement Général Agricole. 2020. < <https://zabal-agriculture.opendata-paysbasque.fr/pages/home/> >

Horrelako ibilmoldea dute:

- **nagusiki familiako kideekin** (langileen %68a). Familiatik kanpo, laborantza langileria iraunkor guti (langileen %4a), baina sasoiariak (langileen %28a);
- **kalitateko mozkinak:** etxaldean erdiak kasik kalitate xarta baten arabera (BIO, AOP, IDOKI...) ekoizten du. Zirkuitu laburrak, merkatuak, salmenta etxean...

> LABORANTZA

Bigarren mundu gerlatik, industrializazio azkarra ezagutu du laborantzak... mundu mailako merkatuan sarrarazi dituen mozkinak, teknikak eta makinak erabiliz. Hala ere, Iparraldean, beste lekuetan baino mugimendu ahulagoa da, tokiko geografia eta kulturari esker: mendiak, etxaldean izaria eta izaerak mugatzen ditu etxeari eta honen transmisioari garrantzia handia emana zaie, eta kolektiboki eta arloka lan egitearen lurralde honen berezitasunak aztarnak uzten ditu laborantza munduan ere.

Etxaldean kopurua apaltzen bada ere, laborantzak, sektore nagusia izaten segitzen du lanpostuei dagokionez lurraldeko hainbat lekutan. **Garazi-Baigorri eremuan, adibidez, kasik lau pertsonetatik batek laborantzan lan egiten du.**

Laborantzak beste sektoreak baino gehiago moldatzen du lurraldea eta irudi biziki azkarra ekartzen dio; honela, mendia, karta postaletan ikustea maite dugun bezala, artzaintzak moldatua du. **Ingurumenerako zinezko interes orokorreko zeregina** segurtatzen dute laborariak, eta honi, ez zaio beti aski baliorik ematen.



Ardiak bortuan - Polo Garat

Lau sormarka³¹ dauzka Iparraldeak:



OSSAU-IRATY
ardi gasna



IRULEGI
arnoak



EZPELETAKO
BIPERRA



KINTOA
xerria

Eta, laster, Europako lehen mugaz-gaindiko izendapena plantan ezarria izanen da... EUSKAL SAGARNOARENTZAT.³²

³¹ Jatorri Deitura Gerizatua edo AOP


³² 2024ko urtarrilean egina izan da eskaera. Azpimarratu behar da Itsasulo gerezi ekoizleen elkartea (Xapata), mozkin horrendako sormarka eskaera urratsetan sartua dela ere.

Laborantza eta hazkurri industria sareetan, **kultura eta ondare balio azkarrek irauten dute:** lurra lantzen da, hazten da, transformatzen da, gustuz sukaldatzen da eta gastronomia euskal nortasunaren markatzailea da ere (ik. 7. arloa).

Horretaz gain eta Iparraldeko sektore guzietan bezala, ideia berritzaileak badira ere: 2020az geroztik, **dutearen ekoizpena** muntatzen ari da laborari batzuen inguruan, kultura horrendako klima eta ingurumen aproposa atxeman dutelako.

Laborantza eta hazkurri industria biziki antolatua eta dinamikoa da Ipar Euskal Herrian.

Eragile anitz sareetan antolatzen dira, ekintza kolektiboak eramaiteko eta lurraldeari berezitasunak ekartzen dituzte:



lantzen dugu

hazten dugu

eraldatzen dugu

EHLG³⁴

ARRAPITZ
batasuna

UZTARTU
klusterrak

laborantza ganbara alternatibo bezala kontsideratua, 2005etik hona, laborantza herrikoia eta iraunkorraren modeloa sustengatzen duten laborariak biltzen ditu. 20 bat langile ditu.

laborantzaren garapenean lanean ari diren 17 elkarte biltzen dituen, Iparraldeko laborariak sortua, laborarientzat. Haien artean, EHEEE³³ elkarte, 1992an IDOKI labela sortu duena. Kalitatezko label horrek etxaldeko ekoizpena eta kontsumitzailearekin zuzenezko harremana duena segurtatzen du. 100 bat etxalde biltzen ditu gaur egun.

elikaduraren arloko eragileak biltzen ditu, ekoizleetatik hasiz, botere publikoetara. Bere kideek proiektu kolektiboak eramaiten dituzte, HERRIKO markaren sortzea bezala, kalitatea, jatorria eta elikagaien zuzentasuna segurtatzen dituenak. Adibidez: HERRIKO irinak tokiko laborariak (gari ekoizpenarentzat), eiherazainak (bere irinaren bilakaraztearentzat) eta okinak (ogi ekoizpenarentzat) biltzen ditu.

³³ Euskal Herriko Etxe Ekoizleen Elkarte

³⁴ Euskal Herriko Laborantza Ganbara

Hazkurri industriako enpresak

Etxaldean egin transformatzeaz gain, kanpoko enpresak (Lavalen kokatua eta **PYRENEFROM** gasnategia erosi duen Lactalis bezala) erakartzen edo tokiko enpresak

(**BASTIDARRA** esnetegia bezala) sorrarazi dituen ardi esne ekoizpenari esker, azkarki garatu da **hazkurri industria**.

Lurraldeko enpresak erosten dituzten talde handi horiek ez dituzte baitezpada ekoizpen lekuak eta enpleguak deslokalizatzen. Horrela, lekuko langileentzat, ehun ekonomikoaren mantentzea ahalbidetzen dute: gorago aipatu adibideetaz haratago, **BONCOLAC** enpresa aipatzen ahal liteke (1955ean sortu enpresa da, janari prestatu eta bixkotxgintzan berezitua). Bere ekoizpen lekua eta 200 lan postu mantendu ditu Lekuinen, 2023 hondarrean, 200 milioi euro baino gehiagoko salmenta zenbatekoa duen **ONORÉ** talde internazionala bilakaturik ere.



Mozkin nagusi batzuen ekarlea da hazkurri industria:



Ardi gasna (**AGOUR**, **FROMAGERIE DES CHAUMES**, **ONETIK...** gasnategiekin)



Bixkotxgintza eta berezikia-go euskal bixkotxa (**PARIES**, **BASSILOUREKO EIHERA**, **BARBIER-MILLOX...**)



Baionako txokolatea (**CAZENAVE**, **ATELIER DU CHOCOLAT**, **CHOCOLAT ANTON...**)



Xerrikiak (**MAYTE HARAGITEGIA**, **ELIZALDIA ETXALDEA**, **LOUIS OSPITAL ...**)

Baionako xingarra (ik. ondoko orria), Itsasuko gerezia, Pirinioetako axuria, aratxeki axoa eta beste hainbat gauza oraindik...



> AMUARRAINA




IRATIKO, IZPEGIKO, BANKAKO ARRAINTEGIAK...

Mendietako erreka bazterretan garatu da izokinen hazkuntza. Senpereko Aquapôle gunean, **INRAE-ko**³⁵ berrogoita hamar bat ikerlarik, langilek eta ikaslek akuakulturan lan egiten dute.

Bankako arraintegia

GALDETEGIA

Zerk egiten du Baionako xingarra « Baionakoa » dela ?



- Zerrikiaren ekoizpenaren eremua
- Baionako xingarren ekoizpenaren eremua
- Zerrikiaren bide komertzialak
- Xingar freskoaren bide komertzialak
- Hiltegiak
- Gatzitegiak

*Irudia: Baionako Xingarra
AGGaren eremua*

Baionako xingarra Iparraldeko ikur azkarra bada ere, izari handiko ekoizpena izaten segitzen du, Loiretik Mediterraneoara doan lurralde batean. Honela, Baionako Xingarra AGG³⁶ pean saldua den xingar bat, Kantal eskualdean hazi, Lot eskualdean hil eta Biarnoan afinatu xerri batetik etor daiteke.

Azken urrats honetan da « labela » segurtatua: eskuineko eskeman berdez adierazia den eremu geografikoan gazitua izatea.

³⁵ Laborantza, Elikadura eta Ingurumenerako Ikerketa Institutu Nazionala

³⁶ Adierazpen Geografiko Gerizatua

3. ARLOA



Arte eta ekoizpen eskulangintza

Batzuetan biziki zaharrak baitira, euskal nortasunean leku osoa duten trebetasunak garatu dituzte enpresa anitzek. Arte eta ekoizpen eskulangintzaren sektore honen ezaugarria dugu **langintza aniztasun handia, bikaintasun nozioa** langintza guzien arteko puntu komuna ukanik haatik. Funtsezko balioa da sektore guzira.

Lurraldearen kalitate irudi horri esker dira Ipar Euskal Herriko enpresa ttipi anitz sortu, eta hauetako batzuek « **ondare biziko enpresak** » labela lortu dute.



Ondare biziko enpresak



« Gure herriaren sormena eta historia kontakizunen bitartez balioan ezartzeko sortua izan da Hemendik proiektua. Oroimena eta gaurkotasuna elkartzan dituen proiektu bateratzailea da.

Iraganetik abiatuz, oraina ulertzea eta etorkizuna inspiratzea da xedea:

« oroimena bildu eta partekatu nahi dugu, denena izan dadin. Sorkuntza prozesuek gaituzte bereziki interesatzen, egoera berriei egokitzea ahalbidetzen baitute. **Industria, kultura eta jendartearen arteko zubiak eraiki nahi ditugu.** »

Euskal Herriko 50 objektu ikonikoren historia kontatzen du HEMENDIK-EK

Hemendik-en mapa hau erabilia da, bere sortzailer den Jean-Louis Iratzokiaren baimenarekin.



Euskal Herriko 50 objektu ezaugarri (mapa), Hemendik 2020.

> ALTZARIAK

ETE garrantzitsuak, edota BIE-ak bilakatu dira eskulangintzako enpresa batzuk:



SOKOA (Hendaia) bulegoko aulkiaren liderra da Frantzian eta 270 pertsona baino gehiago enplegatzen ditu;



ALKI (Larresoro), gaur egun berrogoita hamar bat langilerekin, eskulangintzako kooperatiba baten adibide esanguratsua, tradizioko altzarien gainbeherari aurre egin behar diona, eta jakin izan duena bere izaera berriz asmatzen altzari garaikideak fabrikatzen hasiz. « Hemendik » (ik. aitzineko laukia) proiektuaren sorreran zegoen **IRATZOKI LISASO** (Azkaine) diseinu industrial tailerraren laguntza jaso zuen horretarako;



Nafarroa Beherearen bihotzean, tradizioaren ikuspegi garaikide batean sartzen jakin izan duen eskulangintzako enpresa dugu ere **PAGO64** (Gamarte); bere 20 soldatadunekin, sukaldeko altzariak garatzen ditu eta show-room bat plantatzen du kostaldean.

> OIHALGINTZA ETA EHUNGINTZA

Ospe handia du euskal oihalak



Jantzi ehungintzan, gure lurraldean ongi errotuak diren lerra marka handien ondoan (**QUIKSILVER, VOLCOM...**), ehungintza marka berriak sortu dira azken urte haue-tan: **KATXI KLOTHING, EZ KEXA, AKILOUKAP, edo OWANTSOOZI**, Urdiñarben plantatu enpresa gaztea kasketak sortzen dituen eta baita beste moda piezak edozein motatako hondakinekin, 2020an Hermès saria lortu duena.

2023 bukarean **CETIA** es-treinatua izan da Hendaian, **ehunen eta oinetakoen birziklatzea eta berrera-biltzeari eskaini berrikuntza plataforma**. Europan bakarra den gune honi esker bere bezeroei (modako marka, fabrikatzaile eta biltzai-le) ahalbidetzen du haien ekoizpenaren birziklatzea industrializatzea.

Historikoki, beroaz eta parasitoez babesteko idiak estaltzeko baliatu zen, eta zazpi euskal probintziak irudikatzen zituzten zazpi lerro koloretsuk ezaugarritzen dute. **LARTIGUE 1910** enpresak bere ekoizpenak tokian berean ehuntzen segitzen du.

CETIA

ehunen eta oinetakoen birziklatzea eta berrera-biltzeari eskaini berrikuntza plataforma

> LARRUA

VOLTAIRE DESIGN (90 soldatadun) taldeak, goi mailako zaldiketa zaltoki konektatuak fabrikatzen ditu Bidarten, ipar amerikar merkaturako nagusiki. Lapurdin, **DEVOUCOUX** (hirurogoi bat enplegatu) eta **FACON CUIR** (30 enplegatu) enpresek salbuespenezko zaltokiak ere sortzen dituzte.

LAFFARGUE ETXEAK kalitate handiko larruzko artikulua sortzen eta fabrikatzen ditu Donibane Lohitzunen... eta **BANKAKO ARRAINTEGIA** dibertsifikatu da, amuarrain azalezko ekoizpen sorta berritzailea sortuz.

Lurraldearen nortasuna elikatzen duen langintza batekin loturan, euskal pilotak fabrikatzen ditu **PUNPA** enpresak 1890etik.



> ZAPATAGINTZA

Zuberoan, espatingintzaren tradizioak segitzen du **DON QUICHOSSE** (Maule), **ARMAITE** (Idauze-Mendi) bezalako

enprekin. Azpimarratzekoa da Zuberoan ere dela **PATAUGAS** zapata famatua sortu!

Iparraldean, ehun urtez gorako trebetasunak erabiltzen dituzten eskulangileak ere atzematen ditugu...



AINCIART BERGARA tailerrean (Larresoro), badu zazpi belaunaldi Makhilak fabrikatzen dituztela;



NOBLIA PALA-k (Maule), Iratiko pago egurrezko pala tradizionalak fabrikatzen ditu;



GOICOECHEA POTERIA (Ortzaize) hogoita hamar bat soldataduneko familia enpresa da, azken hiru belaunaldi hauetan, goi mailako zeramikako frantses eta nazioarteko merkaturan eragile nagusia bilakatu dena;



FORGE ADOUR Europako lehen plantxa fabrikatzailea, bere mozkinak Baionatik diseinatzen eta merkaturatzen dituena.




Zeramika merkaturia

Bastida: artisau herri bat

Herri horrek hamabost bat arte esku langile kondatzen ditu, **ARKUA kolektiboaren** inguruan antolatuta batez ere, publikoari hainbat hitzordu proposatzen dituenak: tailerrak, hitzaldiak, eta zeramika merkatu bat milaka bisitari jinaratzen dituenak urtero.

Baso, bitxi, kanita, kuadroa, zeramika, musika instrumentu, esku langileak... besteak beste Bastidan aurkitzen diren talendu bereziak dira.

4. ARLOA



Eraikuntza

Sektore horrek

8.000
lanpostu

bultzatzen ditu

Hala ere, herritarren, enpresen, kolektibitateen, hirigintzaren, antolamenduaren... zerbitzuko den sektorea da.

Lanbide talde ugari daude sektore honetan: izari guzietako enpresetan dauden maiasturunt-

za, hargintza, igeltseragintza, lauzataritza, tindaketa, zurgintza, iturgintza, elektrizitategintza, etabar. Eraikuntza berrian edo berriztatzean berezituak izan dira eta lurralde osoan esku hartzen dute azken hauek.

Zenbait enpresa esanguratsu:

ETCHART
TALDEA-k



bere 1.800 enplegatuekin Frantziako hego-mendebalde handiko eremuko merkaturan plantatuak (hargintza lanetan adar batzuekin obra publikoetan, energia...) egoitza historikoa Irisarrin du;

LAPIX
BÂTIMENT



Donibane Lohitzuneko familia enpresa da, obra handian berezitua. Eraikuntza Obra Publikoetako bederatzita enpresa biltzen dituen **CASTILLON TALDEAn** (Donapaleu) sartzen da 2014an;

ALKAR




ekoizpen langile kooperatibak 93 pertsona enplegatzen ditu bere Mauleko gunean. Metalezko teilatu egiturak fabrikatzen ditu laborantza eta industria etxegintzarako. Adarrak Toulousen, Montpellieren eta Mayotten baldin baditu ere gaur egun, ekoizpen guziaz Maulen fabrikatzen du.

ARKINOVA GUNE TEKNOPLITANO BAKARRA EUROPAN³⁷

Eraikuntza iraunkorrari eskainia zaio Angeluren bihotzean kokatu teknopolo hau. Goi mailako irakaskuntza erakundeak, laborategiak eta ekoetxegintza sektorerantz itzuli enpresen arteko sinergia sustatzea du xede. 49 hektareako gune honen zati batek (2023an) arlo

honetan adituak diren eragileak jadanik hartzen ditu: **NOBATEK** baliabide teknologiko zentroa, **ISA BTP** ingeniarietza eskola, **Paueko eta Aturri Herrialdeko Unibertsitateko** laborategiak (UPPA), **Cantau Lizeoa eta Fédération Compagnonnique des Métiers du Bâtiment**.

ARKINOVA



³⁷ EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOA (EHE). *Technopoles Pays Basque : Arkinova*. [2024ko urtarrilean begiratu], < <https://www.technopolepaysbasque.fr/fr/4-sites-technopolitains/arkinova/decouvrir/savoir-faire.html> >

5. ARLOA



Kultura, natura, kirolak & aisialdiak



Baionako bestak

Kontakizun honetan aurkeztuak diren beste bederatzi sektoreetako langintza askoren garapenaren motor bat da euskal nortasuna.

Nortasun honen bihotzean, hizkuntza, kultura eta natura ondarea atzematen ditugu, eta denborarekin garatu diren, arte eta kultura sorkuntza, natura, kirol eta aisialdi arloko aktibitateak... eta orokorki, bizi moduei, gertakizun kolektibo handiei, sormen lekuei, herri elkarretaratzeei, eta ekonomia mailako ondorio handiak dituztenei lotu aktibitateak.

Nola ez aipatu herriko besta guzietako... eta Baionako bestetako ekonomia mailako ondorioak³⁸?

Izan ere, euskal kultura bizi-ziarazten duten elkarte sare biziki sendoa aurkitzen dugu lurraldean.

Hauetako 200 baino gehiago



Euskal Kultur Erakundearen kide dira

Gauza bera gertatzen da euskarari dagokionez, **AEK** edo **JAKINOLA-ren** gisan klaseak emateko irakasleak soldatadun egiten dituzten elkarteekin.

EKE-z gain, badira beste kultura instituzio ezagutuak, hauen artean:



BALLET MALANDAIN DE BIARRITZ Akitia-Berri mailako bizi kulturalaren polo nagusi bat da, eta Frantziaren hego-mendebaldeko koregrafia zentro bakarra (Frantziako bakarrenetarikoa dantzari konpainia bat enplegatzen duena denbora osoz).



AKITANIA HEGOALDEKO ESZENA NAZIONALAK, 52 ikusgarri proposatzen ditu 2023-2024 sasoinarentzat, lurralde osoan ikusgarri bizia garatzeko eta lekuko konpainiak sustengatzeko xedearekin.

³⁸ 1,3 milioi partehartzaile eta 30 milioi euroko ekonomia mailako ondorioa estimatua | SUD OUEST. *Fêtes de Bayonne 2023*. 2023ko agorriaren 02a. < <https://www.sudouest.fr/pyrenees-atlantiques/bayonne/fetes-de-bayonne-2023-au-moins-1-3-million-de-festayres-une-frequentation-record-16142822.php> >

GALDETEGIA

Zuen inguruko kultura ekitaldi garrantzitsuen adibideak emaiten ahal ote dituzue?



Barkoxeko maskarada

HERRI URRATS (SEASKAK urtero antolatzen duen ekitaldiak, 80.000 jende biltzen ditu), **EUSKAL HERRIA ZUZENEAN, LE TEMPS D'AIMER LA DANSE**, pastoralak, kabalkadak eta maskaradak, herriko bestak eta lotu ekitaldiak...

Kirol mailan,

Iparraldeak maila biziki oneko amatur klubak baditu. Euskal pilota eta bere berezitasunak (esku huska, xistera, joko garbi, zesta punta, pala corta, xare...) plaza eta trinketetan jokatuak dira eta **EUSKAL PILOTAREN FEDERAZIO FRANTSESEAN** batasunean errepresentatuak dira. Horrez

gain, lurraldeak alde azkarrak ditu errugbian (**L'AVIRON BAYONNAIS RUGBY PRO, LE BIARRITZ OLYMPIQUE**) eta eskubaloinean: **US NAFARROA HANDBALL-EK** (Baigorri eta Garazi) 300 lizentziadun baino gehiago ditu, Akitania-Berriko emazte kluba garrantzitsua izanez.

Eta jakin behar da Xiberuako kirol praktikatuena ez dela errugbia, pilota edo eskubaloina... bainan euskal dantza!



Eragile hauen agerraldi bakoitzak, kultura edo kirol mundukoak, amatur edo profesionalak izan, **eragina du lurraldeko aktibitate guzietan**: ostatu eta jatetxeak, merkatalguneak, garraioa eta logistika, laborantzatik eta hazkurri transformatzetik etorri tokiko mozkinak, etab.

EUSKAL RAID elkarteak eraman **Euskal Trails** (Baigorri) bezalako kirol gertakizun batek 600.000 €-ko ondorio ekonomikoak ekartzen ditu haran osoan³⁹ (hotelak, ostalaritza, komertzioak etab.).

Itsasoa eta mendiaren artean, aparteko natura ondarea dago lurraldean, aire zabaleko aktibitateentzat aproposa izateaz gain, aisialdi eta turismoarentzat ere badira, baina

baita ingurumenaren babesa, eremu ahulduen kudeaketa, sentsibilizazioa, kondutan hartzekoak dira.

Iparraldean, turismorako erakargarriak diren eremu naturala ezagutuak badira.

³⁹ EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOIA (EHE). *Les projets Leader Montagne Basque 2014-2020 : Réalisation d'un bilan carbone d'Euskal trails et mise en place d'actions correctives.* < www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/Montagne_basque/LEADER/Euskal_Raid.pdf >



Holtzarteko zubia, 180 metro goratasunetan lotua, Olhadubiko arroilaren gainean. Urtero, 50.000 pertsona ibiltzen dira.

Ondokoak dira bisitatuenak:



LARRUNGO TRENA (320.000 sartze inguru urtero)



MIARRITZEko AKUARIOA (302.000 sartze)



SARAKO HISTORIAURREKO LEZEAK (100.000 bisitari ingururekin⁴⁰).

Berdin aipa genezake **VERNAKO HARPEA** (Santa Grazi), espeleologiako gune nagusia, munduan bisita daitezkeen lurpeko hamar gela handienetakoa dena.

Handik ez urrun, **IRATIKO OIHANA** Europako pagadi zabalena. Beroketa klimatikoaren parean, Zuberoako sindikatu batzordea, bere geroa segurtatzeko **IRATIKO OPORLEKUAREN** eredu ekonomikoa berriz asmatzen ari da (eskia utzi ondoren).



VERNAKO HARPEA

munduan bisita daitezkeen lurpeko hamar gela handienetakoa da.



Euskal itsasbazterrean, Miarritzeko uhainetan dira lehen aldiko surflariak agertu European.

Gaur egun, surf eskola ugarik irakasleak enplegatzen dituzte surf klaseak emateko itsasbazter guzian.



Urruña eta Hendaia artean, **ABADIA JAUREGIKO BEHATOKIA** (ik. ezkerreko argazkia) aldi berean, **historia** (monumentu historiko labelduna) **zientzia eta natura** (itsasbazterreko Kontserbatorioak eremua eta laborantza aktibitateak kudeatzen ditu) eta **kultura** lekua da (Nekatoenea etxea, artista egoitza bezala erabilia da).

⁴⁰ PROTOURISME. *Etat des lieux tourisme et de l'action touristique au Pays Basque*, 2021eko apirila. < https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/media/etiquette/Tourisme/Etat_des_lieux_Tourisme_Pays_Basque_Synthese_27-09-2021.pdf >



Itsasoa eta itsasbazterreko ekonomia

Arrantzatik ur kirolara, surfatik itsas baliabideei buruzko ikerketa eta balorizazioa, turismotik logistikara, **itsasoari itzulia zaio iparraldeko ekonomia oso bat.**

> ARRANTZA EKONOMIA

DONIBANE LOHITZUNE / ZIBURUKO PORTUA (ik. eskuineko argazkia) Frantzia mailako 5. portua da eta lehena, atuna eta legatz arloan (kanako legatz famatuarekin). Hogoï bat langile daude portuko arrain saltokian eta urtean 8.000 tona arrain eta itsaski baino gehiago iragaiten dira.

Langintzak, zailtasun handiak ezagutu baldin baditu ere, berrogoi bat ontzi, portuan finkaturik gelditzen dira. Urte osoan, lehen bezalako arrantza egiten dute Kantauri itsasoan.



Donibane Lohitzune / Ziburuko portua Frantziar Estatu mailako 5. portua da.

Haien langintza anizteko gisan, lau edo bost hilabeteko garai baterako, hamahiru ontziek hondarrean gelditu itsasbelar gorriak biltzen dituzte. Lantegiak bilakaturik, nagusiki agar-agar, elikaduran edo kosmetikoetan erabili gehigarria ekoizteko baliatzen dira.

Urrunago hegoaldera buruz, baina beti badien, **ZIBURUKO ITSAS LIZEOAK**, merkataritzako marina, arrantza itsasontzietako marina, langile, teknikari lanbide formakuntzak eskaintzen ditu.

> SURF EKONOMIA

Kostaldea (Landesetako itsasbazterrekin) mundu mailako lerraren ekonomian identifikatua da ere: bere ospe handiko uhinez gain, sareko enpresa anitzek hauen europar egoitzak bertan plantatu dituzte.

130 baino gehiago bilduak dira **EUROSIMA** klusterrean, hauen artean nazioarteko enpresa handiak hala nola **RIP CURL** Landesetan, **VOLCOM** Angelun eta **BOARDRIDERS TALDEA** (Quiksilver, Roxy, Billabong..) Donibane Lohitzunen. Startup ugari agertu dira ere azken hogoi urte hauetan, surf taulak fabrikatzeko bezainbat, ehungintzan, osagaiak egiteko, grafismoan, argazkilaritzan, diziplinaren irakaskuntzan, egonaldien erreserbatzean, etabar aritzeko.

Honela du **DECATHLON-ek** Hendaiako portuko arrain saltoki ohian, ur kirolen arlo guzirako bere munduko diseinu zentroa (« Water Sport Center ») plantatu. 300 langileen artean diseinatzaileak, ingeniariak, ekoizpen buruak, prototipistak eta eredugileak atzematen ditugu markarako ekoizpen berritzaile eta erabilgarriak asmatzeko (Easybreath « burbuila » maska famatuaren gisara).

Ondorioz, lerraren ekonomiarekin lotu guneak sortu ditu Ipar Euskal Herriak:

CREALUZ, Donibane Lohitzuneko Jalday jarduera gunearen bihotzean, eko-sorkuntza proiektu eramaileen laguntzan berezitua da, besteak beste lerra, laket itsasketa eta ur kirol saretan.

Prototipatze tailerra eta 3D inprimatze gela bat plantatua da enpresa mintegi horretan (**LYNXTER** enpresak asmatu makina-tresna batekin).

CREALUZ



OLATU LEKU



OLATU LEKU-k lerra eta outdoor sareko enpresa gazteak eta **EuroSIMA** klusterreko bulegoak hartzen ditu Angelun.

ESTIA-k, Estia Entreprende bere inkubatzailarekin, enpresak sortzeko laguntza eskaintzen eta ekosistemaren animazioa segurtatzen du.

Itsas eta itsasbazterreko ekonomia, elkarte, eskola, gertakizun, kirol talde...-ez osatu sare oso bat da ere. Honela, udan hondartzak zaintzeko sokorritzaileak urte osoan zehar formatzen ditu **BIARRITZ SAUVETAGE COTIER** klubak.

Miarritzen da atzematen ere, 50 pertsona inguru enplegatzen dituen **SURFRIDER FOUNDATION** ingurumen arloko GKE-ren egoitza.

7. ARLOA



Ostalaritza eta sukaldaritza

Hotel handitik jatetxe ttipira, **ostalaritza eta sukaldaritza sektore osoa lagutzen du**, Ipar Euskal Herriak duen **kalitate irudiak**.

8.000 lanpostu baino gehiagorekin lurraldean, sektore nagusienetarikoa da. Baina tentsiopeko sektorea da ere, lanpostuak betetzeko zailtasunak dituen, eta berezikiago COVID-19-ari lotu krisitik atera ondotik eta Iparraldean etxebizitzaren krisiaren areagotzearekin. Langileria eskas honi aurre egiteko, jatetxe anitzek hobetzen dituzte haien soldatadunen lan baldintzak.

> SUKALDARITZA

Helmuga gastronomikoa da Ipar Euskal Herria. Euskal sukaldaritza, bere lekuko mozkin famatuekin, lurraldean bizitzeko maneraren parte da (ik. 2. arloa), jakinez **12 jatetxe izardun** direla lurraldean. Jakin behar da, Donostia dela, biztanleka jatetxe gastronomiko gehien duen hiria, munduan.

Baionan, lau saltokietatik bat ostatua edo jatetxea da (Frantzian, bataz beste, hiri bateko saltokien %16a direlarik).

12 jatetxe izardun dira lurraldean



Baionako hiri zentroa

Udan, turismoak naturalki bulkada ematen badio sukaldaritza sektoreari, ez litzateke hain garatua izanen, urte osoan tokiko jendeak bertan ibiliko ez balira.

Baionan,
4 saltokietatik 1



ostatua edo jatetxea da,

Frantziar Estatuan, bataz beste, hiri bateko saltokien %16a direlarik.

> OSTALARITZA

Pirinio Atlantikoetako alokairuzko oheen %75a hartzen ditu Iparraldeak, eta eskaintzaren bi herenak, itsasbaterreko zortzi herrietan, Angelutik Hendaïara kokatuak dira.

Beste sare oro baino gehiago, **ostalaritza berez, turismoaren** eta, beraz, orokorkiago, Ipar Euskal Herriaren erakargarritasunaren mende dago.

Lurraldean zerrendatutako alokairuzko 80.000 ohe ingururen %60a hotelek proposatzen dituzte.⁴¹ Hala ere, norbanakoen arteko aterpetze plataformen partetik agertu lehia gero eta handiago eta kontsumitzeko eren bilakaerei aurre egin behar die sektoreak.

Iparraldeak,
Pirinio Atlantikoetako
alokatzeko diren oheen

%75a 
hartzen ditu



HÔTEL DU PALAIS,
Miarritzeko
eraikuntza
enblematikoa da.

Napoleon III.a eta Eugénie de Montijo-ren lehengo etxebizitza inperialaren (1854-1885 artean eraikia) inguruan eraikia da. Ehun bat langile ditu gaur egun, eta ostatu bat ere badu.

⁴¹ PROTOURISME. *Etat des lieux tourisme et de l'action touristique au Pays Basque*, 2021eko apirila. < https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/Tourisme/Etat_des_lieux_Tourisme_Pays_Basque_Synthese_27-09-2021.pdf >

8. ARLOA



Osasuna eta ongizatea

Iparaldean, lanpostu gehien eskaintzen duen sektorea da hau (17.000 inguru), hauen %60a publikoan (besteak beste **BAIONAKO OSPITALEAN**) eta %40a pribatuan (klinikak, osoasunaren industria, baina ere arta lanbideei lotu lanbide liberal guziak).

Lanpostu gehien eskaintzen duen sektorea

%60a

— publikoan

%40a

— pribatuan

> BAINUETXEEN HISTORIA

Ipar Euskal Herriaren ezaugarrietako bat da **artarekiko historia luzea**: izan dadin Pirinio mendate osoan atzematen den bainuetxeekin, edo Eugenia enperadosak 1850 hamarkadan jendarteratu itsas bainuekin Miarritzen.

Akitania Berriko hamahiru talasoterapia zentroetatik bost, Iparaldean kokatuak badira ere (berrogoita hamar bat dira Frantziar Estatuan), bainuetxeen garapena, molde orokorragoan, « **artaren kate** » oso batekin batera egiten da: medikuntza praktika gehigarriak, egonaldi eta aterpetze eskaintzak, zerbitzu eskaintzak, aktibitate antolaketak...

Bainuetxeen historiari lotu tokiko trebetasunak, medikuntzara buruz aniztera ahalbidetu du, lurraldean edo hortik hurbil dauden kimika / farmaziako sareekin loturan (ik. ondoko orria).



Kanboko bainuetxeak



27.000
bisitari

ekarrarazten
dituzte urtean

Pirinio Atlantikoetako
lehen ur hiria bilakara-
ziz horrela.

Bainuetxeen inguruan antolatu da ostalaritza eskaintza oso bat, balneoterapia eta osasuntze hornikuntza guzietan.

2015ean, 142 lanpostutan estimatua da bainuetxeen eragin sozial zuzena, 8,7 milioitan eragin ekonomikoa, eta 12,8 milioitan zeharkako eragin ekonomikoa.⁴²

Azkenik, badu zonbait urte orain, ongizate eta kirol-osasunaren inguruko tematika batzuk agertzen direla, handituz doazen biztanleen eta turisten asmoei, bai eta « ongi zahartzea » laguntzeko funtsezko erronka sozietalari oihartzun eginez.

Adibidez, azken gai honi dagokionez, **IPAR EUSKAL HERRIKO EHPAD SAREA** elkarteak 39

zahar etxe biltzen ditu (adineko pertsonak hartzen dituzten elkarteetako pribatuak, merkataritzako pribatu eta lurraldeko publikoak), zahartzeari buruzko erronkak elgarren artean partekatzeko helburuarekin.

SANTE SERVICE elkarteak, lurraldean, etxeko ospitaleratzean berezituak diren 250 soldatadun ditu.

BAIONAKO OSPITALEA



da lurraldeko enplegatzaile nagusia, 4.000 lanpostu ingururekin.

Hemendik aitzina, guneak, Baionan, Donibane Lohitzunen, Hendaian, Hazpamen, Kanbon, Donapaleun, Donibane Garazin eta Donazaharren dauzka.

⁴² BAIONAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBARA. *Impact économique de la chaîne thermale du soleil de Cambo-les-Bains*. 2015

> OSASUNAREN INDUSTRIA

Nazioarteko merkatu garrantzitsuari eta biologia, kimika, zehaztasuneko mekanika, elektronikoa, etabar. bezalako alor biziki ezberdinei irekia zaien ikerketa eta berrikuntza sektorea da.

Tokian berean sortu enpresak eta lurraldean plantatzeko hautua egin duten enpresak daude Ipar Euskal Herrian: gure lurraldeak, eta Biarritzek bereziki, irudi azkarra dute osasun eta ongizate alorretan, nazioarte mailan, eta hau onuragarria zaie marken estrategiei. Sare honen garapenari esker, zinezko gaitasun eremua bilakatu da lurraldea⁴³.

Hegazkingintzaren ondotik, Iparraldean lanpostu gehien sortzen dituzten enpresak osasunaren sektorean atzematen ditugu:

OSASUN NUMERIKOAREN EKONOMIA


**SOPHIA
GENETICS**

euskal enpresaburu batek Lausanne (Suitza) eta Massachusetts (AEB) artean sortu sozietatea, Bidarteko **IZARBEL teknopolooan** plantatu berri da. 450 langileko enpresa da, mundu mailan medikuntza munduan ezagutua, minbizien eta eritasun arraroen jatorria atzemateko informazio genomikoen bilketan berezitua;

MEDTECH

Sophia Genetics jadanik aterpetzen duen teknopoloko eraikinean, 2024an, plantatuko da medikuntza teknologietan berezituak diren enpresa mintegia.

⁴³ BASQUE INVEST. *Les filières d'excellence - Santé et bien-être*. [2024ko Urtarrilean kontsultatua]. < <https://www.basque-invest.com/fr/les-filieres-dexcellence/industrie-sante-bien-etre/> >



MEDIKUNTZA MATERIALAREN INDUSTRIA

TECHNOFLEX

Bidarte

300 langile baino gehiagorekin, poltsa bigunen diseinu eta ekoizpenaren liderra da munduan;

BIOLUZ

Donibane Lohitzune

70 langile baino gehiagorekin, erremedio injektagarri poltsen betetze, esterilizatze eta paketatzean azken 40 urteetan berezitu den laborategi independentea da;

B. BRAUN

Donibane Lohitzune

300 langile baino gehiago ditu bere Donibane Lohitzuneko gunean eta medikuntza produktu hornitzaile garrantzitsuenetakoa da munduan;

RENAUDIN LABORATEGIA

Itsasu

farmaziako produktuetan berezitua da eta 250 pertsona enplegatzen ditu.



Kosmetiken industrian jarduten duten **BIARRITZEKO LABORATEGIAK** bezalako enpresak badaude ere Ipar Euskal Herrian, hauen eguzki artak eta kosmetikoak Frantziako farmazia guzietan atzematen dira, edota **EQ**, surf munduan kosmetiko biologiko egiaztatuetan liderra dena.



Numerikoa eta hedabideak

Iparraldea, beste lurraldeak bezala, numerikoaren IKT-en (Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak) eta digitalaren aroan sartua da.

Langintza sektore guzien garapen ekonomikoa ahalbidetzeko, sektore « oinarria » da **numerikoa**. Zeharkako langintza da, industria eta zerbitzuen langintza berrietan I&C⁴⁴ tresna bat bezala atzematen dena:



SOPHIA GENETICS (8. arloan aipatua), medikuntza ikerketan edo numerikoan dagoena, Adimen Artifizialarekin datuak enpresa publiko eta pribatuetarako ekoiztuz;



VOLTAIRE TALDEA (3. arloan aipatua), Europan bakarra den mozte tresna numeriko batekin goi mailako zelagintza konektatua ekoizten lortzen du.

Iparraldeko IKT-en aitzindarien ondotik (internet gune, kudeaketa tresna, CRM, etab. sortzaileak), startuper belaunaldi berri batek, beti zorrotzuz doazen biharko industriari itzuli aplikazio ugari hedatu ditu.


IZARBEL teknopolo gunea (Bidarte, ik. eskuineko argazkia) puntako numeriko alorrean berezitua da. Logiziel argitaratzaileak, zerbitzu numeriko enpresak, "pure playerak", digital komunikazioko eragileak hartzen ditu besteak beste.

110 enpresa eta 1.000 langile baino gehiago dira Izarbel-en eremuan, **inkubatzaile** bat eta **enpresa mintegi** bat, 750 ikasle inguruko **ESTIA ingeniari-tza eskola**, bai eta **PAYS BASQUE DIGITAL kluster numerikoaren** egoitza ere. Ekosistema honen baitan, publiko munduko eta elkarte munduko enpresaburuak biltzen dituen **ANTIC** (numerikoaren erabilpenerako agentzia parapubliko) atzematen da ere.



⁴⁴ Ikerketa eta Garapena

Numeriko arloko enpresa adibide batzuk:



ADAXIS, ESTIAko ikasle ohi batzuek sortu enpresa, enpresa industrialetarako 3D inprimatze logizielara garatzen du;



HUPI, Enpresa Biziki Ttipi bat da, adimen artifiziala erabiltzen duena enpresek, erabakiak hartzen laguntzeko;



VRACOOP, ESTIA enteprendre-n « inkubatua », gaur egun, Créaluz mintegian plantatua (ik. 6. arloa), elikagaiak nahas-mahasean saltzea errazteko, hazkurri saltokiei zuzendu aterabideak garatzen ditu;



WIKICAMPERS furgoneta antolatu alokatze plataforma da. IZARBEL teknopoloko eraikin berri batean plantatuak dira honen 40 langileak, honi esker enpresako langileen kopuruak bikoiztu behar luke datozen urteetan.

> EUSKAL HEDABIDEEN BILDUMA BAT

SUD-OUEST, FRANCE 3 eta **FRANCE BLEU**ko tokiko adarrak lurraldeko bizi ekonomiko eta sozialean biziki errotuak badira ere, erreportaiak eta emankizunak euskaraz ekoiztuz, tokiko hedabide sare oso bat da, **EUSKAL HEDABIDEAK** elkartearen inguruan garatu.

Militantismo ekonomikoa agertzen da ere Iparraldeko hedabideen langintzan.

Euskal hedabide adibide batzuk:



EUSKAL IRRATIAK elkarteak, euskaraz ari diren bost irrati biltzen ditu: **Xiberoko Botza**, **Irulegiko Irratia**, **Amikuzeko Irratia**, **Gure Irratia**, **Antxeta Irratia**;



KAZETA.EUS informazio webgunea;



KANALDUDE, Aldudarrak Bideok hedatu telebista katea;



BERRIA-ren (Ipar Euskal Herriko Hitza) eta **HERRIA-ren** astekariak;



MEDIABASK hedabidea eta paperezko astekaria;



Prentsa militante eta politikoa ere badago: **ENBATA**, **JAKINTZA...**

Azpmarratu behar da kazetari euskaldun behar handia dagoela tokiko hedabideetan: **euskaraz aritzeko kazetaritzako unibertsitate diploma bat plantan ezarria izan da 2023an⁴⁵.**

⁴⁵ Baionan dagoen "Kazetaritza eta hedabideen ezagutza" unibertsitate mailako diploma. Euskararen Erakunde Publikoak (EEP), Paueko eta Aturri Eskualdeko Unibertsitateak (UPPA), Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) eta Bordaleko Kazetaritzaren Institutuak sorturiko diploma da.

10. ARLOA



Garraioa eta logistika

Logistika sektorean sartzen dira garraio (errepidekoa nagusiki), gordailutze, karreatze, orotariko egokitzapen eta beste zerbitzu langintza.

Duen kokapen geografiko ezin hobeari esker, ipar Europa eta Iberiar penintsularen arteko trukatzeko bidegurutzean, Espainiara baina eskualde zentro handiak diren Paue, Bordele eta Toulousera buruz ere, errepideko, tren-bideko eta portuko **logistikarako interfaze nagusi gisa kokatzen da Euskal Herri osoa**. (adibide gisa, 10.000 merkantzia kamioiek muga pasatzen dute egunero).

Arlo horretan

5.000 lanpostu

Miarritzeko aireportuaz gain, bi garraio eta logistika azpiegitura handi atzematen ditugu Ipar Euskal Herrian, salgaien garraioa tren-bide eta itsas garraiara pasatzeko zeregina-ren puntan izateko horrela.

EUROPAR PLEITA ZENTROA (EPZ), Lehuntze eta Mugerre udalerrietan kokatua, Akitania Berriko gune logistiko handienetakoa da, lau

pleita trenen kargamenduarekin egunean batuz beste. **78 enpresa eta 1.800 lanpostu** dira langintza ekonomiko gune honetan.⁴⁶


Trenbide sareei lotua den **BAIONAKO PORTUAK**, 2,5 milioi tona salgai ibilarazten ditu urtean. Portutik iragaiten diren salgai kategoria handien artean aurkitzen ditugu:



Laborantza eta hazkurri salgaiak (mugimenduen %20a inguru), arto esportazioarekin lehen lerroan.⁴⁷



Metalgintza (mugimenduen %40a): **LANDESETAKO MEHAGAILUA-k**, burdin xafla azkarren ekoizpenean berezitua, eta burdineria inportatzen, eraldatzen eta altzairuzko puxtarri ttipi formarekin berriz igortzen dituen **CELSA-k**, hartu eduki ahalaren erdia kasik hartzen dute;



Zenbait enpresa bereizgarri:

OLANO



Egoitza historikoa Donibane Lohitzunen kokatua duen familia enpresa da **OLANO**. 3.500 langile eta 60 logistika gunerekin Frantziako hegomendebalde handian, laugarren garraiolari frantsesa da taldea, errepideko garraio frigorifiko alorrean;

MENDY



Mugerreko EPZ-en kokatua da **MENDY**, beste familia enpresa bat. Salgaien multzokatzean (bezero desberdinei eraman beharreko mozkinak kamioi bakar batean biltzea), eta modu anitzeko garraioan (kamioien burdin bidezko garraioa, itsas garraioa eta errepideko garraioaren arteko muntadura) berezitua da;

HEMENGO ERLEA



2016an sortua, 47 langilez osatu SCOP gaztea da **HEMENGO ERLEA**. Salgaien logistika eta azken kilometroko banaketan berezitua da.

⁴⁶ EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOIA (EHE). *Centre Européen de Fret (CEF) de Bayonne-Mouguerre*. [2024ko urtarrilean begiratua]. < <https://www.communaute-paysbasque.fr/annuaire-des-projets/projet/centre-europeen-de-fret-cef-de-bayonne-mouguerre> >

⁴⁷ BAIONAKO PORTUA. *Filières*. [2024ko urtarrilean kontsultatua]. < <https://www.bayonne.port.fr/fr/la-vie-du-port/filieres/> >

BIBLIOGRAFIA

6.or – AURREIRITZI ANITZ DIRA EKONOMIA ARLOAN

BAIONAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBARA eta EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOEA. *Observatoire économique du Pays Basque*. 2019.

- › < <https://www.technopolepaysbasque.fr/fr/toutes-les-actualites/actualite/observatoire-economique-du-pays-basque-2019-est-publie.html> >

FRANCE INFO. *Près de 15 % des emplois dépendent de l'agriculture en France ?* 2015eko otsailaren 19a.

- › < https://www.francetinfo.fr/replay-radio/le-vrai-du-faux/pres-de-15-des-emplois-dependent-de-l-agriculture-en-france_1772543.html >

8. or – LEHEN PARTEA: LURRALDEKO EKONOMIAREN AURKEZPENA

AZIA. *Le Guide de l'Emploi*. 2018. [2024ko martxoan begiraturua].

- › < <https://azia.xyz/wp-content/uploads/2018/04/azia-guide-mars-2018-internet.pdf> >

BAIONAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBARA eta EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOEA (EHE). *Observatoire économique du Pays Basque*. 2019.

- › < <https://www.technopolepaysbasque.fr/fr/toutes-les-actualites/actualite/observatoire-economique-du-pays-basque-2019-est-publie.html> >

BAIONAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBARA. *Baromètre ECO – L'enquête de conjoncture de la CCI Bayonne Pays Basque*. 2023ko iraila.

- › < https://www.bayonne.cci.fr/sites/g/files/mwbucuj1516/files/2023-09/CCIBPB-BarometreEco_S1_sept_2023.pdf?tstmp=1693906099 >

BAIONAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBARA. *Les chiffres clés de la création et reprise d'entreprise au Pays Basque*. 2023ko iraila.

- › < <https://www.bayonne.cci.fr/actualite/les-chiffres-cles-de-la-creation-et-reprise-dentreprise-au-pays-basque> >

BAIONAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBARA. *Analyse des flux économiques – Pays Basque : opportunités de développement économique*.

- › < <https://www.bayonne.cci.fr/fichier/analyse-des-flux-economiques-pays-basque-opportunités-de-développement-économique> >

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOEA (EHE). *Portrait social du territoire*. 2018ko uztaila.

- › < https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/Etre_accompagne/Analyse_des_Besoins_Sociaux_Pays_Basque.pdf >

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOEA (EHE). *Schéma de Développement Économique*. 2019.

- › < https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/kiosque/SDE-2019-EXE-4.pdf >

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOEA (EHE), BAIONAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBARA eta AUDAP. *Observatoire économique du Pays Basque*. 2021.

- › < <https://www.bayonne.cci.fr/sites/g/files/mwbucuj1516/files/2022-05/observatoire-economique-2021.pdf> >

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA (EEP). *Euskararen Adierazle Sistema*. [2024ko urtarrean begiraturua].

- › < <https://www.mintzaira.fr/eu/baliabideak/euskararen-adierazle-sistema.html> >

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA (EEP) eta AUDAP. *Perspektiba soziolinguistikoak: Euskara 2050eko epemugan. Ipar Euskal Herriko euskaldunen estimazioa eta 2050eko epemugaren perspektiban jartzea*. 2024ko ekaina.

- › < https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/20240610_EEP_EUS.pdf >

INSEE. *Comparateur de territoires*. 2020. [2024ko otsailan begiraturua].

- › < www.insee.fr/fr/statistiques/1405599?geo=EPCI-200067106 >

INSEE, *Tableaux de l'économie française*. 2020. [2024ko otsailan begiraturua].

- › < <https://www.insee.fr/fr/statistiques/4277675?sommaire=4318291> >

18.or – BIGARREN PARTEA: IPARRALDEKO EKONOMIA 10 SEKTORE NAGUSI-REN BITARTEZ

BAIONAKO PORTUA. *Filières*. [2024ko urtarrean begiraturua].

- › < <https://www.bayonne.port.fr/fr/la-vie-du-port/filieres/> >

BAIONAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBARA. *Impact économique de la chaîne thermale du soleil de Cambo-les-Bains*. 2015

BASQUE INVEST. *Les filières d'excellence - Santé et bien-être*. [2024ko urtarrean begiraturua].

- › < <https://www.basque-invest.com/fr/les-filieres-dexcellence/industrie-sante-bien-etre/> >

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOEA (EHE). *Centre Européen de Fret (CEF) de Bayonne-Mouguerre*. [2024ko urtarrean begiraturua].

- › < <https://www.communaute-paysbasque.fr/annuaire-des-projets/projet/centre-europeen-de-fret-cef-de-bayonne-mouguerre> >

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOEA (EHE). *Les projets Leader Montagne Basque 2014-2020 : Réalisation d'un bilan carbone d'Euskal trails et mise en place d'actions correctives*.

- › < www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/Montagne_basque/LEADER/Euskal_Raid.pdf >

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOEA (EHE). *Technopoles Pays Basque : Arkinova*. [2024ko urtarrean begiraturua].

- › < <https://www.technopolepaysbasque.fr/fr/4-sites-technopolitains/arkinova/decouvrir/savoir-faire.html> >

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOEA (EHE). [Open Data ZABAL]. *Recensement Général Agricole*. 2020. [2024ko apirilean begiraturua].

- › < <https://zabal-agriculture.opendata-paysbasque.fr/pages/home/> >

EKONOMIA SOZIALA ETA ERALDATZAILEA ETA ELKARTE BIZIAZ ARDURATZEN DEN ESTATUKO IDAZKARITZA. *L'Essentiel de la vie associative 64*. 2022ko abendua.

- › < https://www.associations.gouv.fr/IMG/pdf/essentiel_64.pdf >

HEMEN. *Présentation*. 2017. [2024ko martxoan begiraturua].

- › < <https://hemen-herrikoa.org/hemen/> >

HERRIKOIA. *25 ans d'histoire*. 2006.

- › < <https://www.herrikoa.com/images/livre-25-ans.pdf> >

IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA. *Gizarte zibilaren ahotsa*. SOAK. 2016ko azaroa.

- › < <http://www.lurraldea.net/uploads/media/SOAK-CDPB-Nov-2016.pdf> >

ITÇAINA. « Les mobilisations discrètes : Affirmation identitaire et choix économique en Pays Basque français ». *Sociologia : problemas e práticas*. 2006.

- › < <https://shs.hal.science/halshs-02176611> >

PROTOURISME. *Etat des lieux tourisme et de l'action touristique au Pays Basque*. 2021eko apirila.

- › < https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/Tourisme/Etat_des_lieux_Tourisme_Pays_Basque_Synthese_27-09-2021.pdf >

SUD OUEST. *Fêtes de Bayonne 2023*. 2023ko agorriaren 02a. [2024ko urtarrean begiraturua].

- › < <https://www.sudouest.fr/pyrenees-atlantiques/bayonne/fetes-de-bayonne-2023-au-moins-1-3-million-de-festayres-une-frequentation-record-16142822.php> >

ARGAZKI KREDITUAK

- 25.or - École supérieure des technologies industrielles avancées (ESTIA), Bidarte. Michel Bakni. 2011. CC-by-sa 4.0 lizentzia.
› <https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=70083840>
- 27.or - Ardiak bortuan. Polo Garat. 2023.
- 30.or - Bankako arraintegia. Pierre Carton. 2017.
- 31.or - Euskal Herriko 50 objektu ikonikoren istorioak (mapa). Jean-Louis Iratzouqui - Hemendik elkarte. 2020.
› <https://hemendik.eu/>
- 33.or - Marché céramique Pays Basque. Office de Tourisme Pays Basque - Valentin. 2024. CC-by-nc 2.0 lizentzia.
› <https://www.flickr.com/photos/196653707@N08/53658251808/in/album-72177720316250940/>
- 34.or - Angeluko Arkinova. Anna Imbert - Garapen Kontseilua. 2024
- 35.or - Baionako bestak. Euskal Kultur Erakundea.
- 36.or - Barkoxeko maskarada. Mathilde Agor. 2021.
- 37.or - Holtzarteko zubi esekia. Janfri. 2007. CC-by-sa 3.0 lizentzia.
› <https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Holtzarte3.jpg>
- 37.or - Château d'Abbadia. PierreD. 2020. CC-by-sa 4.0 lizentzia.
› https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Ch%C3%A2teau_d%27Abbadia.jpg
- 38.or - Saint-Jean-de-Luz, le port, avec la Rhune en toile de fond. Harrieta 171. 2007. CC-by-sa 3.0 lizentzia.
› https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Jean_de_Luz_Port_Rhune.jpg
- 39.or - Crealuz Donibane Lohitzunen. Justine Giraudel - Garapen Kontseilua. 2024.
- 39.or - Olatu Angelun. Anna Imbert - Garapen Kontseilua. 2024.
- 40.or - Homme et femme debout sur le pont pendant la journée - Bayonne. Tom Sekula. 2018. Licence Unsplash.
› <https://unsplash.com/fr/photos/homme-et-femme-debout-sur-le-pont-pendant-la-journee-11pSjzqORiA>
- 41.or - Hôtel du Palais Miarritzeko plaiaren gainekaldean. Andrew Stobart. 2014. CC-by-sa 4.0 lizentzia.
› https://commons.wikimedia.org/wiki/File:H%C3%B4tel_du_Palais_Biarritz_Napol%C3%A9on_III.jpg
- 43.or - Bâtiment thermal du village de Cambo-les-bains [argazki moztua]. Tibauk. 2006. CC-by-sa 1.0 lizentzia.
› https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Thermes_de_cambo-les-bains.jpg
- 46.or - Izarbel teknopoloa Bidarten. Anna Imbert - Garapen Kontseilua. 2024.
- 48.or - Navire Puffy à quai au port de Bayonne en mai 2014. Jvillafruela. 2014. CC-by-sa 4.0. lizentzia.
› https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Navire_Puffy_%C3%A0_quai_au_port_de_Bayonne_en_mai_2014.jpg

Iparraldeko Ekonomiaren kontakizun bat.
2024ko abenduko bertsioa.

Idazketa: Garapen Kontseilua
Sorkuntza grafikoa eta inprimatzea: DonibaneKopi

Kontakizun honen sortzeko eman bultzadarentzat,
esker berezi bat Philippe Arretz-i.



Lurraldeko gazteen orientazio bideei buruzko ibilBIDE esperimentazioaren (2021-2024) baitan ekoitzi da kontakizun hau. Garapen Kontseiluak eraman proiektua da, Akitania-Berria Eskualdearen sustengutarekin.



Euskal Hirigune Elkargoak sustengatzen du Garapen Kontseilua.



Mapak eta arlo desberdinak errepresentatzen dituzten irudiak, kontakizun honetan aurkitzen ahal direnak, Emploi Pays Basque-ekin partaidetzan sortu dira. Hau, Baionako Merkataritza eta Industria Ganbararen dispositiboak da.